


Berrigara



Ara
tuzt
eak

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



Amondarain

Gure Ametsa, Sta. Luzia Auzoa 25, Tolosa

Telefonoa: 65 33 54.

Apirila bukaera arte zabalik.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

150 lagunentzako lekua,
eserita nahiz zutik.



Bidebitarte

Bidebitarte baserria,
Arrago auzoa (peaje ondoan), Oiartzun

Telefonoa: 49 21 01.

Apirilera arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Eguerdi eta gauetan irekita
(domeka gaua eta astelehena izan ezik).

Bertako janaria.

80 lagunentzako lekua eserita
jantoki epelean.

txotxetik edan sagardotegi onenetan



Elutxeta

Elutxeta baserria, Urnieta

Telefonoa: 55 69 81.

Apirilera arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria.

200 lagunentzako lekua,
eserita nahiz zutik.



Rezola

Ipintza baserria, Astigarraga

Telefonoa: 55 66 37.

Apirilera arte zabalik.

Bertako janaria.

100 lagunentzako lekua, eserita.



Egungo demokrazia

Ainhoa Agirreazaldegí / Bertsolaria

Hamar urte beteko dira aurtin legeak diosenaren aurka baina modu oso ofizialean dispersioaren dinamika inposatzea erabaki zutenetik. Bereziki gogorrak izan dira azken hamar urte hauek Euskal herriko familia askorentzako: asteroko gastu erantzun ezinak, ezagutu beharko ez litzuketen arrisku mordoa, espainiar jendearen mesprezuzko trataera ugari... eta zer esanik ez euskal presoek beraien dagokienean: Euskal Herritik urrun egotea eta gainontzeko presoekiko isolamendua jasangaitzak dira ilargia agertu eta ilargia izkutatu, inoiz amaituko ez direla diruditen urteei aurre egin behar zaienean.

PNV buru zutela, Euskal Herriko zenbait partidu politikok onartu ezezik, bultzatu ere egin zuen bere garaian PSOEek martxan jarritako sakabanaketa politika hori. Orain urte eta erdi ordea euskal presoen euskalerriratzea parlamentuan eskatzea erabaki zuten Rubalkabak eta beste zenbait kidek. Ez da diferentziarik igarri ordea, dispersioaren bultzatzaile ziren garaitik legea bete-

tzea eskatu bide zuten arte: egoerak lehenean dirau.

Europako parlamentura omen doaz orain, PNVk proposatu eta EA, IU eta HBk ere sinatu duten dokumentu bat esku artean dutela. Gauzak nahasten eta epea luzatzen oso ondo dakitela erakutsi dute beste behin ere.

Hau guztia gertutik inork baino hobeto ezagutu eta bizi izan dutenak azken hemezortzi urteetan Joxe Mari Etxaniz eta bere sendia izan dira. Dispersioaren aurreko eta ondorengo garaiak modu lotsagarrian jasan behar

izan ditu Etxanizek eta, ondorioz, bere babeslerik finenek: senitartekoeak. Espetxean zegoela hil zitzaion ama, eta ez zuten etxera ekarri. Bere bizitza erdia eman du espetxean. Hainbeste urrutiratu dute bere sustraietatik eta hainbeste denboran, ezen goizero imajinatzen duen Euskal Herria ez dela benetako Euskal Herria. Baina goizero beste gauza bat ere badu buruan: bi aldiz zapaltzen dute legea berarekin: Euskal Herrian egon behar luke bategatik, gainontzeko euskal presoek bezalaxe; baina hori baino gehiago da hala ere, kondenaren hiru laurdenak beteta dituenez gero, kalean egon beharko bailuke berez. Eta hori benetako erreallitatea da.

Non dago herri honen demokrazia? Non daude giza eskubideak? Guztiaren arduradun nagusia lehen eta orain, PNV da, hala nahi izanez gero, Madrillgo bere PPko sozioekin hordagoa joko balu gauzak berehala aldatuko lirateke-elako.

Euskal presoak Euskal Herrira. Etxaniz askatu. B

"Bere bizitzaren erdia eman du espetxean. Hainbeste urrutiratu dute bere sustraietatik eta hainbeste denboran, ezen goizero imajinatzen duen Euskal Herria ez dela benetako Euskal Herria"

■ barruan



Mila Etxaniz

Etxaniz presoaren arreba

"Kode penal berria aplikatuz gero, Jose Mari etxean egon beharko litzateke"

8. orrialdean.



Naiara Beistegi

Futbolaria

"Iaz Kopako finala jokatu genuen eta aurtin mailaz igotzen saiatuko gara"

22. orrialdean.



Pedro Rico

Lagunak-eko presidentea

"Valladolidek, nire taldeak, mailari eutsiko dio eta Liga Real Madrilek irabaziko du"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1938. Otsailaren 20an Mekolalde-Gasteiz trenbideari argindarra eman zioten. Ordurarte lokomotorak ikatzarekin ibili ziren. Maltzaga-Zumarraga trenbide adarra, berriz, 10 urte lehenago elektrifikatu zuten.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1827. Otsailaren 14ean Berriotxoako San Balentin jaio zen Elorrioren.
1491. Otsailaren 15ean Audio herria Bizkaitik banandu eta Arabarekin elkartu zen.
1985. Otsailaren 19an Madriletik Bilbora zihono Boeing 707 hegazkin bat, behera etorri zen Oiz mendian. Bertan zihozten 148 bidaiariak hil egin ziren.

MUNDUAN GERTATUA

1913. Otsailaren 17an Edisonek zine soinuarena aurkeztu zuen lehen aldiz New Yorken.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzita 13
1-5-13-16-28-37 (osag.43/er.6)
Astelehena 16
11-12-19-35-36-43 (osag.41/er.6)
Martitzena 17
1-5-17-34-42-44 (osag.10/er.1)
Eguaztena 18
11-25-28-32-35-48 (osag.46/er.8)

PRIMITIVA

Zapatua 14
11-14-23-25-31-45 (osag.17/er.1)
Domeka 15 Gordo
8-12-15-21-28-33 (osag.7/er.3)

ONCE


Eguakitzita 13: 35.512 (K. seriea: 115)
Astelehena 16: 62.306
Martitzena 17: 94.673
Eguaztena 18: 35.848

BESTE BATZUK

Bedelkarreko harakinak: 2.306





Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguraldiak okerrera egingo du: zapatuan, hodeiak nagusituko zaizkigu eta euria egingo du han hemenka; domekan, eguraldi euritsua izango dugu, tenperaturak behera egingo du eta haizeak iparmendebalitik joko du.

Ilargiaren aldiak

-  Ilberri: Otsailak 26
-  Ilgora: Martxoak 5
-  Ilbete: Martxoak 13
-  Ilbehera: Martxoak 21

Eguzkia

Domekan



Sortu: 08:02



Gorde: 18:59

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 12	20	0	-
Eguakitzita 13	23	-1	-
Zapatua 14	25	0	-
Domeka 15	25	1	-
Astelehena 16	20	2	0,6
Martitzena 17	19	10	-
Eguaztena 18	22	2	-

farmaziak

Eguakitzita 20

MOZOS. 22:00ak arte
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.
 AMEZUA. 22:00etatik aurrera
Sta. Marina 32, Arrasate. Tf. 79 09 74

Zapatua 21

CAMACHO. 22:00ak arte
Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.
 ZABALA. 22:00etatik aurrera
Zarugalde, Arrasate. Tf. 77 16 30.

Domeka 22

CAMACHO. 22:00ak arte
Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.
 RUIZ. 22:00etatik aurrera
Magdalena 31, Arrasate. Tf. 79 14 09.

Astelehena 23

PUY. 22:00ak arte
Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.
 MORALES. 22:00etatik aurrera
Araba, Arrasate. Tf. 79 18 65.

Martitzena 24

GUALLAR. 22:00ak arte
San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.
 AZKOAGA. 22:00etatik aurrera
Ferrerias 1, Arrasate. Tf. 79 15 15.

Eguaztena 25

ESTELLA. 22:00ak arte
Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.
 ESPAÑOL. 22:00etatik aurrera
Iturrioz 17, Arrasate. Tf. 79 14 88.

Eguena 26

MOZOS. 22:00ak arte
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.
 CORCUERA. 22:00etatik aurrera
Elkano 2, Arrasate. Tf. 79 22 26.

ogia

Domeka 22: Mizpildi.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulantzia	55 49 62
Udalzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

Udala

Udaletxea	77 91 00
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

Prensa berriemaleak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57

Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuena Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritza	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro ludoteka	76 23 76

hamaika ikusteko jaio ginen!

Portatil ultramehea

Digital HiNote Ultra 2000 izeneko ordenagailu portatila da munduan 14" pantaila duen lehena. Sendoera: 3 cm, Pentium MMX prozesagailua (166MHz), RAM: 32 MB. Prezioa: 1.154.000 PTA!.

■ jaiotakoak

BERGARA
Maria Agirrezabal Pascual
 Otsailak 8
Asier Perez Etxeberria
 Otsailak 10

ANTZUOLA
Aste honetan, eguenera arte, ez da inor jaio Antzuola.

■ hildakoak

BERGARA
Julio Azkateaskasua Larrañaga
 Otsailak 11, 85 urte
Mari Cruz Biteri Eguren
 Otsailak 11, 75 urte
Jesus Oroitz Leonardo
 Otsailak 13, 69 urte
Bittori Zabaleta Alberdi
 Otsailak 14, 86 urte
Eloy Elortza Zarautz
 Otsailak 15, 56 urte
Ignacio Otaño Zabaleta
 Otsailak 16, 82 urte

ANTZUOLA
Abelino Laskurain Larrañaga
 Otsailak 17, 77 urte

zorion agurrak



Ibon Labaien
 Gaur, otsailaren 20an 8 urte. Zorionak familiakoan partez!



Roman Labaien
 Otsailaren 19an 39 urte. Zorionak familiakoan partez!



Mikel Gonzalez Gonzalez
 Otsailaren 19an 30 urte. Zorionak koadrilakoan partez!



Pello Etxaniz
 Otsailaren 26an 2 urte. Zorionak Elena, Irati eta Belenen partez!



Ander Orbegozo
 Otsailaren 15ean 5 urte. Zorionak etxekoan eta domekakoan partez!



Ion Kapelastegi
 Otsailaren 21ean 12 urte. Zorionak etxekoan eta domekakoan partez!



Erlantz Olabarria
 Otsailaren 18an 16 urte. Zorionak familiaren partez!



Jon Arrese
Atorrasagasti
 Otsailaren 23an 8 urte. Zorionak etxekoan partez!



Pili Sampietro
 Otsailaren 20an 33 urte. Zorionak koinataren eta Danelen partez!



Aitor de Benito
 Otsailaren 24an 4 urte. Zorionak etxekoan partez!



Laiane Mendibil
 Otsailaren 22an 14 urte. Zorionak etxekoan partez!



Ander Narvaez
 Otsailaren 19an 7 urte. Zorionak amatxoren eta aitaxoren partez!



Aitzol Lenisoro
 Otsailaren 15ean 4 urte. Zorionak amama, Hodei eta gurasoen partez!




Urrategi
 Otsailaren 23an 37 urte. Zorionak zure ikasleen partez!

Bittori Zabaleta Alberdi

Osintxun hil zen, 86 urte zituela, 1998ko otsailaren 14an.


Familiaren partez mila esker azken agurra ematera etorri zineten denoi.



Adoracion Gallastegi Alberdi

Bergaran zendu zen 1998ko urtarrilaren 31n.


Familiaren partez mila esker azken agurra ematera etorri zineten denoi.



Luis Maria Madina Pagola

Bergaran hil zen otsailaren 10ean.

Hileta elizkizunetara joan zinetenoi eskerrik asko emaztearen, semeen, amaren eta familiakoan partez.



■ PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 20:30, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Las Veneno** taldearen "¿Qué fue de las hermanas Sue?" zapatuan 22:30etan Arrasateko Amaian.

MUSIKA

► **Señor No eta Snobs** (lehenago Why not?) taldeak gaur, eguakitzan, Arrasateko Gaztetxean, 21:00etan.

ERAKUSKETA

► **Berpizkunde hiritarra** erakusketa, Udaletxean martxoaren 1era arte.

IKASTAROAK

► **Islada** Bideo Tailerrak hainbat ikastaro antolatu ditu: bideo sarrera ikastaroa (martxoaren 24tik maiatzaren 8ra), gidolaritza (uztailaren 6tik 21era) eta edizio ikastaroa (urriaren 23tik azaroaren 27ra). Argibideak Kultur Etxean.

► **Saltsa eta merenge** ikastaroak martxoaren 1etik udara arte Jam aretoan. 76 35 81.

► **Sokorrismo** ikastaroak Deba Garaiko kirol zerbitzuen eskutik. Lehen laguntzei buruzko ikastaroa martxoaren 16an hasiko da eta uretako sokorristarena apirilaren 24an (honetarako

MIKEL VICENTEREN ALDE

Kontzertua

Udal Pilotalekuan

Noiz: domeka, 12:30etan
Sarrera: 500 PTA.

Aratuztetako programaren barruan, Mikel Vicente gazte bergararren aldeko musika kontzertua izango da domeka eguerdian Udal Pilotalekuan. Udal Musika Bandak eta Orkestak karnabaletan eskeini ohi duten kontzertuan jasotzen den dirua, Mikel Vicente Aita Mennin ingresatuta egoteagatik bere familiak jasan behar duen gastua ordaindu ahal izateko bideratuko da. Horrez aparte, kontzertuko nobedatetako bat Orkestak, aurreneko aldiz, Bergarako Orkestra Sinfonikoa izenarekin emango duen lehen kontzertua izango dela da. Orkestak hemendik aurrera ez du loturarik izango Musika Eskolarekin. Dagoeneko zuzendaritza batzordea osatzen ari dira eta estatutuak prestatzen dihardute.



Bandak eta Orkestak elkarrekin joko dute domekan.

beharrezkoa izango da aurrekoaren titulua izatea). Ikastaro bakoitzak 20.000 pezeta balio du eta biak eginez gero, 30.000 pezeta ordainduko dira. Izen ematea martxoaren 8a baino lehen. Argibideak 77 91 67.

► **Gipuzkoako aisialdiko hezitzaileei** zuzenduta, Donostiako Urtxintxa Eskolak euskara suspertzaille ikastaroa antolatu du martxoaren 14tik aurrera. Prezioa 12.000 pezetakoa da. Izen-ematea eta argibi-

deak 42 79 27 telefonoan.

LEHIAKETAK

► **Bergarako XIII. Literatur lehiaketa.** Lanak apirilaren 22rako entregatu

ZUBIETA

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48



ARATUZTEETAN, AFARI BEREZIA Tartufo jatetxean zuzeneko musikarekin
Dantzarako pista ere badaukagu

San Juan auzoa, Elgetarako bidea, Bergara. Tf. 76 35 51.

Enkarguak hartzen dira

Aratuzteetako egitaraua

ZAPATUA

- 16:30. Haur jolasak San Martin plazan.
- 19:00. Buruhaundi eta erraldioen kalejira.
- 19:30. Xamatx dantzaldearen kalejira eta dantzak.
- 21:30. Suzko zezena, San Martin plazan.
- 23:00. Dantzaldia plazan Hermanas Ros taldearekin.

DOMEKA

- 12:30. Orkesta eta Bandaren kontzertua Frontoian. Mikel Vicenteren alde.
- 18:00. Tutik ere clowns pailazoak Frontoian.
- 18:30. Kristina eta Amaia trikitilariak Plazan.

MARTITZENA

- 16:00. Musika Eskolako txarangaren kalejira.
- 17:00. Sebastopoleko titiriteroen kalejira.
- 18:30. Egan taldearekin karaokea Plazan.
- 20:30. Sardinen entierroa.
- 22:30. Eganekin dantzaldia Plazan.

beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan.

DEIAK

► Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak mar-

txoaren lean **Bizkargira** irteera antolatu dute. Irteera goizeko 7:30etan Frontoitik. Izen-ematea Pol-Poleko bulegoan, 76 48 51 telefonoan.

► **Formigalera** eski irteerak otsailaren 28an eta martxoaren 1ean; martxoaren 7 eta 8an eta, azkenik, martxoaren 19tik 22ra. Alpeetara irteera apirilaren 10etik 17ra. Izen-ematea Pol-Poleko bulegoan, astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara. Argibideak 76 48 51 telefono zenbakian.

► **Gure Ametsa elkarte** San Antonio auzoko argazkiak biltzen ari da, martxoaren 27tik aurrera erakusketa zabaltzeko asmoz. Kolaboratu nahi dutenek euren argazkiak entregatu ditzakete elkartearen bertan, egunero 19:00etatik aurrera.

KINTADAK

► **1974an** jaiotakoen bazkaria martxoaren 14an. Izena emateko Euskadiko Kutxa irekitako kontuan (009.0.04300.4) 2.500 peze-ta ingresatu beharko dira martxoaren 9a baino lehen.

► **1958tik 62ra** bitartean **Angiozarren** jaiotakoen afaria martxoaren 28an. Izen-ematea 78 22 80 eta 76 54 81 telefono zenbakietan egin daiteke.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Titanic

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 21:00.
Astelehena: 19:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30.

Llamando a las puertas del cielo

Eguena, zine kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Sé lo que hicisteis el último verano

Eguakitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

Mowgli y Baloo

Zapatu eta domeka: 17:00.

ARRASATE. Amaia

Profundo carmesí

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Mensajero del futuro

(Orduategia zehazteke)

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15

EIBAR. Rialto

Cosas que dejé en La Habana

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 19:30, 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

Spiceworld

Zapatu eta domeka: 17:00.

ONATI. Santana

L.A. Confidential

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Microcosmos

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ANTZUOLA. Gazinema

Twister

Eguakitza: 22:00.

Matilda

Domeka: 16:30.

TITANIC

Zuzendaria: James Cameron.

Aktoreak: Leonardo DiCaprio eta Kate Winslet.

1912ko apirillean, 1.500 bidaiari zeramatzen Titanic untzia itsasoratu zen. Titanic hondoratu zenetik, *Rose DeWitt Bukater* aristokrazia-ko gaztea (Kate Winslet) eta *Jack Dawson* (Leonardo DiCaprio) abenturazalearen arteko amodioaren sekretuak itsas hondoan gorde dira...



LLAMANDO A LAS PUERTAS DEL CIELO

Zuzendaria: Thomas Jahn.

Aktoreak: Til Schweiger eta Jan Josef Liefers.

Sitgeseko zinemaldian aurkeztutako filme honetan, Martin Brest (Til Schweiger aktorea) eta Rudi Wurlitzer (Jan Josef Liefers) bikotearen gorabeherak azaltzen zaizkigu. Biek gaisotasun larriak jasaten dituzte eta hiltzear daude. Egoera horretan, geratzen zaizkien azken asteak guztiz probetxatzeko promesa egingo dute; batek itsasoa ikusi nahi du lehendabizikoz eta besteak bidaiari horretan lagunduko dio...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Tapizeriak

Moketak

Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

Eta orain

gazteendako,
umeendako eta ume
jaioberriendako
altzariak

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketak: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faka: 77 11 30

Jose Mari Etxaniz preso bergararra kartzelaratu zutenetik 18 urte bete ziren atzo eguna. Madril en epaitu ondoren, 34 urteko gartzela zigorra ezarri zioten, ETAren kolaboratzaile izatearen akusaziopean. Bihar, zapatua, Etxanizen askatasuna eskatzeko manifestazioa egingo da Bergaran. Mila, Jose Marien arrebarekin batekin izan gara hizketan.

G. Noiz izan zara azkenengoz anaiarekin? Zer moduz dago?

E. Gabonetan bisitatu nuen baina ia astero bisitarren bat jasotzen du Puerto-2ko espetxean, Cadizen. Kartzela askotatik igaro ondoren, azken zortzi urteak Puerto de Santa Mariako espetxean eman ditu. Osasun aldetik nahiko ondo dago. Hala ere, duen hernia diskala aspaldian ez diote errebi-satu. Kartzelaratu baino lehen ere gultzurruneko eba-kuntza egin zioten eta harezkeren errebisio gutxi izan du. Baina animo aldetik ondo dago; aurrera egiteko barrutik indar handia ateratzen du, moral aldetik ondo dago. Bertan badira beste euskal preso batzuk baina bakarriko modulo berekoekin biltzeko aukera dauka.

G. Zuen familiak zela bizi du euskal presoan dispersioa?

E. Oso egoera gogorra da, bai eurentzat eta bai guretzat ere. Mila kilometrora egotean, pentsaizu..., bidaia luzeak, kosto ekonomiko handia eta sufrimendu asko. Vis a vis-ak ere hilean behin izaten ditu, ostiraletan, eta hortarako bezperan irten beharra dago, lana utzi eta gaeuz bidaia egin. Oztopo asko dira.

G. Itxaropenik badauka-

MILA ETXANIZ

Jose Mari Etxaniz presoaren arreba

“Kode penal berria aplikatuko baliote, Jose Mari etxean legoke dagoeneko”



Oztopo handiak izaten dituzte Cadizen dagoen anaia bisitatzerako joateko.

zue laister askatuko dutela?

E. Bai, nahiz eta oraindik ez diguten inolako fetxarrik aurreratu. Baina hor dago Ibaeren kasua ere. Jose Mari kondanaren hiru laurdenak beteta dauzka, ikasketak egiteagatik (Majisteritza amaitu ondoren, orain Zuzenbideko bigarren kurtsoa egiten ari da) eta beste arrazoi batzuzengatik

“Errekurtsoak egin ditugun arren, ez dakigu gure anaia noiz askatuko duten eta horrek kezka sortarazten digu”

zigorraren gutxitzea aplikatzen dutela kontutan hartzen badugu. Baina deskuento horiek ez dira kartzela guztietan berdin aplikatzen eta horren adibide Maite eta Peitoren kasua dugu; bata bestea baino urte t'erdi lehenago kaleratu zen. Legearen aplikazio ezberdina egiten dute eta errekurtsoak egin ditugun arren, ez dakigu oraindik noiz askatuko duten eta horrek kezka sortarazten digu.

G. Kode penal berria aplikatu diezaiotela eskatu duzue.

E. Bai, batzuei kode zaharra aplikatzen diete eta beste batzuei, berriz, kode berria. Jose Mari odol deliturik leporatzen ez diotenez, kode penal berriarekin, gehienez, eta inolako erredukzio barik, 20 urteko zigorra izango luke eta, beraz, kalean egon beharko litzateke. Kode penal berria aplikatuta zigor osoa beteta izateagatik kalean egon beharko litzateke.

G. Legebiltzarreko giza eskubideen batzordeak Barne Ministeritzak presoari aplikatzen dien politika salatuko du Estrasburgon. Zela baloratzen duzu hori? Zerbait lortu daitekeela uste duzu?

E. Lotsagarria iruditzen zait horrenbeste urtetan ibili garen moduan ibilita, salaketa hori orain egitea. Ez dut esango berandu denik zerbait lortzeko baina presoan sakabanaketaren kontua oso mingarria da. Ikusi behar da hor dauden politikoei erakusten duten jarra baina EAJk dispersioa onartu zuen bere garaian eta tartean sufrimendu asko jasan dugu. Rubalkabari eta Gasteizko gobernuari esango nieke baldintza penagarrietan gaudela eta orain arte gauza gutxi egin dutela hori konpontzeko. B

Zuhaitz eguna ospatuko da zapatu goizean Pol-Pol iturriaren inguruan

Berrehun hostozabal inguru landatuko dira

Zapatu goizean Zuhaitz eguna egingo da Pol-Pol iturriaren inguruko lur-sailetan. Urtero egiten den moduan, herriko gaztetxo zein herritar orok izango du zuhaitza landatzeko aukera.

Bergarako Udalak urtero antolatzen du sasoi honetan Zuhaitz eguna. Inguruko mendietan bertako zuhaitzak landatzen dira. Aurten 150-200 bat hostozabal landatuko dira Pol-Pol iturriaren inguruan: pagoak, urkiak, astigarrak, aritzak... Victoriano Gallastegi alkateak esan digunez, "Zuhaitzak landatzea eta basoak zaintzea Udal honentzat eguneroko zeregina den arren, jende guztiarentzat Zuhaitz eguna izeneko ospakizuna antolatu nahi izaten dugu urtean behin".

Zuhaitz egunean herritar guztiak har dezakete parte; halere, herriko ikastetxeetako 10-11 urteko neska-mutikoei luzatzen zaie, bereziki, gonbidapena, gaztetatik naturgunearekiko sentsibilizazioa pizteko. Udalak autobusa jarriko du zapatuan



Aurten ere 150-200 bat arbol landatuko dira.

Elosumendira igotzeko. Autobusa Beheko estazioan goizeko 11etan irtengo da eta eguerdi partean ogitarteak banatuko dira arbolak landatzera joaten direnen artean.

HBren proposamenak

Herri Batsunako zinegotzi taldeak hainbat proposamen egin ditu Zuhaitz egunaren inguruan. Bestek beste, Zuhaitzaren lehen

azoka berezia, herriko parkeetan ibilbide botanikoak antolatzea, gaiaren inguruko liburuskak bat argitaratzea eta lehen egiten zen Zuhaitz astearen filosofia berreskuratzea proposatzen ditu.

Zuhaitzaren azoka bereziaren filosofia, alde batetik, azoka eta merkatuak bultzatu eta, bestetik, landaretzak duen garrantzia azpimarratzea izango litzateke. Zuhaitzak saldu eta erakustez gain, hauen ezaugarriak bu-

ruzko informazioa emango litzateke eta, bestalde, basoan lanerako erabiltzen den makinaria saldu eta erakutsi ahal izango litzateke. Zuhaitzaren azoka berezia Erramu Zapatuko eta San Martinetako azoken osagarri izango litzateke.

Horrez gain, Arrizuriaga, Errotalde, Usondo eta Errekalde parkeetan ibilbide botanikoak antolatzea proposatzen du HBk. Honekin batera, liburuskak bat argitaratzea parke bakoitzeko planotxoetan zuhaitzak marraztuz. Azkenik, lehen antolatzen zen Zuhaitz astearen filosofia berreskuratzea planteatzen du HBk. Landa-keta inguruak zehaztu eta bisita gidatuak antolatu, eta ikastetxeetan hitzaldiak antolatuko lirateke.

Joseba Aizpuruak Udaleko nekazal teknikariak proposamen hauen berri badu eta HBko zinegotzietan batera aztertu ditu, hauetako batzuk egoki ikusten ditu gainera. Halere, batzarretan ez da gaia aztertu eta gobernu taldeak ez du gaiaren inguruko erabakirik hartu oraindik. B



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 76 71 19



JAZMIN

Ileapaindegia

IREKI BERRIA. GUSTATUKO ZAIZU.

Espoloia 4, behea. BERGARA. Telefonoa: 76 58 80.



Aurtengo azaroan hasiko dira Bergara eta Soraluze arteko (hiru kilometro) autopistako obrak.

Eibar-Gasteiz autopistako obrak udazkenean hasiko dira

Bergara eta Soraluze arteko zatian hasiko dira lanak

Eibar-Gasteiz autopistako obrak aurtengo azaroan hasiko dira. Bergara eta Soraluze arteko zatian hasiko dira lanak eta datorren urtean Soraluze eta Maltzaga artekoak hasiko dira. Gipuzkoako Diputazioak aste honetan onartu du Bergara eta Soraluze arteko zatia egiteko proiektua idazteko 330 milioi pezeta bideratzea.

Eibar eta Bergara arteko zatiaren (8 kilometro) aurre-

kontua 24.000 milioi pezetakoa da; autopista osoaren aurrekontua, oster, 100 mila milioi pezetakoa. 2000. urterako Eibartik Bergara arteko autopistaren zatia trafikoari zabalik izatea da Diputazioaren asmoa. Autopista osoa 2004. urterako zabalik izatea aurreikusita dago.

Eibar eta Bergara arteko obrak bi zatitan egingo dira: lehenengoa, 3 kilometrokoa, Ondartza paretik hasi

eta eta Soraluzeraino eta lanak aurtengo udazkenean hasiko dira; bigarren zatia, Soraluzetik Eibarrerainokoa (5 kilometro) datorren urteko urtarrean hasiko dira egiten. Eibar eta Bergara lotuko dituen autopista zatiak hiru tunel (Lezari, Gallastegi eta Elitzakoak) eta biadukto bat (Larreategikoa) izango ditu. Autopista osoak 44 kilometro izango ditu eta 12 tunel eta 11 biadukto eraikiko dira. B

Joan XXIII.a plaza urbanizatzeko hitzarmena sinatu

Astelehen eguerdian sinatu zen Udaletxean Joan XXIII.a plazaren urbanizazio lanen hitzarmena. Jesus Arregi, Mauricio Arregi enpresaren izenean, eta Victoriano Gallastegi alkateak sinatu zuten hitzarmena. Urbanizazio lanak aste honetan bertan hasi dira eta lau hilabete beharko dira obrak amaitzeko. Aurrekontua 2.6000.000 milioi pezetakoa da eta Udalak 10 milioi ordainduko ditu; gainontzekoa Mauricio Arregik hartuko du bere gain. B

Pailazoan ikuskizunerako sarrerak salgai

Domeka arratsaldean Tutik ere clowns pailazoez Udal Pilotalekuan eskainiko duten ikuskizunerako sarrerak salgai izango dira Kultur Etxean eta Frontoiko tabernan zapatuta arte. Emanaldia domekan arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta Udal pilotalekuko takilak 16:00etan zabalduko dira. B

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 76 15 09

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
 ☎ 76 21 80-76 06 37

KONDE

PANADEROKUA

Burdinate 1 ☎ 76 02 57

Kontsumo zentzudunaren aldeko idazkiak zabaldu dira

Udalak 4.000 buletin banatu ditu herriko etxeetan

Bergarako Udaleko

Osasun eta kontsumo sailak martxan jarritako kontsumo kanpainaren barruan, kontsumoari buruzko hainbat artikulua biltzen dituen buletina banatuko da herriko etxeetan. Buletinarekin batera pegatina bat banatuko da, etxean publizitaterik jasotzeko ez duteneko buzoietan jarri dezaten; 4.000 buletin eta pegatina banatuko dira.

Kontsumo zentzuduna izenburuko 16 orrialdeko buletinean, Amaia Vazquez, Silvana Huegun, Atea kolektiboa, Bedelkar, Marta Agirrezabala, EHNE, Mendia Bizirik, Eki eta Azokako saltzaileak izan dira kolaboratzaile testuak idazten. Bertan, euskaraz eta gazteleraz idatzita, zabor janariari, kontsumo egoki eta kalitateko artikulua aurki daitezke.

Bestalde, plastikozko poltsen gehiegizko erabilpenari buruz herritarrak kontzientziatzeko beste kanpaina bat jarriko da martxan datozen egun hauetan Bedelkarreko dendarien artean. Behin erabili eta bota egiten diren plastikozko



Herriko etxeetan banatu den buletinaren azala; 4.000 ale banatu dira.

poltsen orde, erosketak egiteko ohiko poltsak erabiltzeko pegatina bat jarriko da herriko dendetan.

Amaitzeko, esan dezagun, Oñati eta Arrasateko kontsumitzaileen bulegoak

ixti zituztenetik, ez dagoela horrelakorik Deba Garaian. Mankomunitate mailan gairi buruzko hausnarketa egiten ari dira eta urte bukaeran erabakiko dute bulegoa zabaldu ala ez. B

Jose Luis Elkoro eta "Kanto" gose greban Martutenen

Martuteneko espetxean dauden Jose Luis Elkoro eta Luis Mari Azkargortak gose greban daude presoen eskubiak aldarrikatzeko eta Euskal Herrira ekartzeko eskatzeko. Astean egun batez, eguenetan, egiten dute gose greba. Bestalde, Ourenseko gartzelan dagoen Iñaki Arietaleanizbeaskoa txapeoan bere zeldatik irtetzeko egon da otsailaren 2tik 16ra arte, presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko. Bixkai isolamendu hutsean dago jogan zen asteko eguastetik. B

Etxanizen aldeko manifestazio ixila zapatuan

Jose Mari Etxaniz presoaren askatasuna eskatzeko manifestazio ixilerako deia zabaldu du Amnistiaren Aldeko Komiteak. Manifestazioa zapatuan eguerdiko 12etan izango da eta herriko hainbat talde eta erakunde erakutsi du manifestaziorako atxekimendua. B

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69

AMPARO
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
Aratuzteetarako makilajeak
Anima zaitetz!
Boni Laskurain 2-4 behea, Bergara. Tf. 76 56 05.

Berrigara

312 zenbakia,
1998ko otsailak 20.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil,
Mikel Elkoroberezar. **Maketazioa:**
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina
Romero. **Harpidetz:** Gorka Elortza.
Testuen zuzenketak: Estepan
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio
kontseilua:** Miguel Angel
Elkoroberezar, Alex
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**
Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxigorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko modelooren makilajea:
Iratxe Azkarate.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizurik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

JOSE MARI ETXANIZ 18 URTE GARTZELAN

Jose Mari Etxaniz 1980-ko otsailaren 19an izan atxilotua. Komisaldegian 9 egun igaro eta bertan torturatu izan ondoren otsailaren 27an gartzeleratu zuten.

Gartzelan daramatzen 18 urte hauetan zehar Etxanizek ongi ezagutu du dispersioa eta zigor politiko honen ondorio guztiak ere eta hauen adierazle ona du: Carabanchel, Soria, Puerto de Santa María, Carabancheko ospitala, martutene, Alcalá Meco, Córdoba, Herrera, Puerto Santa María II, pasatu izana eta gaur egun Bergaratik 1.100 kilometro dagoen Puerto Santa María daramatza azken zorti urte hauek.

Azken zortitzi urte hauetan Jose Mari isolamenduan mantentzen dute, eguneko 20 ordu zeldan itxita, janaria ere ate azpitik sartzen diote.

Bestalde, gartzelan daraman denboran bi ebakuntza izan ditu gaur egun gultzu-

run bat gaisorik dauka eta koliko nefritikozko atakeak jasaten ditu, hala ere azken osasun errebisioa orain dela zortzi urte egin zioten.

Urte hauetan zehar gartzelako egoera zein baldintzak salatzeke, dagoeneko, 20 gose greba baino gehiago egin behar izan ditu, hauetariko bat 40 eguneko izanik.

Etxanizek 1995ean berri ezarritako kondenaren hiru laurdenak bete zituen eta Estatu espainoleko legediaren arabera, dagoeneko, katean egon beharko luke; hala ere, Etxaniz oraindik gartzelan aurkitzen da.

Momentu honetan abokatuak Etxanizi kode berria aplikatzeko eskaera egin du, kode honen arabera berehala kaleratu beharko baitute. Eskaera honen aurrean, Audientzia nazionalak ezezkoa eman du eta momentu honetan Jose Mari, errekurtoa egin ondoren, erantzunaren zain aurkitzen da. Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak Etxanizen

berehalako askatasuna eskatzen du eta Bergarako herritar guztiei bihar, zapatua, gingo den manifestazio ixilean parte hartzeko deia luzatzen dizue.

Idatzi honen bidez eskerak eman nahi dizkiegu manifestazio honetarako zuen atxekimendua eman duzuen guztioi: Akulu AEK Euskaltegia, Txapa Irratia, Bergarako CCOO, LAB, HB, Zutik, Jarrai, Duina, Artatse Elkarte, Komite Internazionalistak, Euskal Herrian Euskaraz, Presoak Euskal Herrira Ekimena eta Senideak.

*Bergarako Amnistiaren
Aldeko Komitea*

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Telefono mobilak beharrezkoak ikusten dituzu? Zuk zeuk erabiltzen duzu telefono mobilik?



Ignacio Lopez

Nik erabiltzen dut, lanerako beharrezkoa dut; nire bulegoa dela esan daiteke. Hori bai, ostiraletik aurrera deskonektatu egiten dut. Lanerako oso ondo dator.



Olga Murillo

Ez diet inongo erabilpenik ikusten eta gainera oso garestiak dira. Nire aitak tailerlean erabiltzen du baina ni ez nau batere erakartzen.



Luis Alberdi

Etxean badago bat. Nik ez dut erabiltzen baina semeak bai eta kanpora joaten denerako eta ondo dator. Lanerako ere baliogarria izan daiteke.

Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Jon Larrañagak mezu bat lada digu eskaera bat egiteko. Jonek diosku Labegaraieta kiroldegira astero joaten dela eta Ibarra kalearen atzealdean, kiroldegiaren parean, autoentzako kaminoa oso ondatuta dagoela. Jon ez da Ibarra kalean bizi, baina Labegaraietara astero joaten denez eta autoarekin handik ibiltzen denez, kalean asfaltu berria botatzeko eskatu du. Zuloz beteta ei dago eta autoarekin bertatik doanean zuloak eskibatzen ibili behar da. Herrian beste behar batzuk ere egongo direla diosku, baina udal agintariei bertatik buelta bat emateko eta kalea ze egoeratan dagoen ikusteko eskatzen die.



Ainhoa Dagerrezar

Beharrezkoak ez ditut ikusten, batzuentzat agian ondo etor daitezke une batzuetan Baina jendea piskat bat exajeratzen ari da. Ez da horrenbesterako.



Enrike Lete

Niretako momentuan ez da beharrezkoa baina lan batzuetarako ondo dator. Beharrezkoa? Mendian zerbait gertatzen bazaizu ere lagungarria izan daiteke...



Clemen Sanjose


Ondo ikusten ditut, beharrezkoak izan daitezke baina gaizki iruditzen zait gidatzen dagoen jendeak erabiltzea. Nik ez dut beharrezko horrelakorik.

■ ikuspuntua: **eugenio alles**

Ihauteriak

Maskara triste edo alai jartzea. Jantzi dotore edo txiro baten itxura hartzea aukeraketa da. Berdin ze moztzeko aukeraketa da. Rol-joko hau onartzerakoan esperimentatzeko desioa daukagula adierazten da. Garai guztietako eta denon gogokoa. Moztortzea oso gauza serioa baita.

Eguneroko bizimoduak dakartzen tentsioak uxatzeko une garrantzitsuak. Gainera ez da zalantzan jartzen gure benetazko izaera, nortasuna, nahiz eta "tontokeria" asko egin den.



berdin da. Dana joku barruan dago.

Aukeraturtako nortasunaren barruan murgiltzea erreza da eta askoz errezago irtezea: maskara kendu besterik ez du gu egin behar eta, hortik aurrera egunerokotasunaren babesten gara, lehen lasaikerian, libertinajearen babestu garen bezalaxe.

Besteek ez gaitzute ezagutzen. Barre egin daiteke, ozenki hitzegin, broma astunak onartzen dira, flirteatu zergatik ez. Eta ezaizuten bagaitzute,

Zoritxarrez, ohitura erlajazio horrek eraman gaitzake gehiegikeria arrisksuak egitera baina, hau, jai giro guztietan gertatzen da. Hala ere, erlajazio honetan, karnabaletan pixkat urrutiago joan daiteke eta "urrutiago joan" honek ematen dio jai giro honi bere apartekotasuna. Urrun ez dauden garrietan galerazita zegoen.

Emakume, gizon, gazte, zahar, pobre eta aberats, denok saiatzen gara errealitatek ihes egiten fantasiako gau bateko leihoetik.


Eta gero? Maskara bat kendu eta egunerokoa jarri, bizitzari aurre egiteko maneiatzen duguna. **B**

■ asteko menua

Lenguado-xerrak perretxikoekin

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 4 lenguado.
- 8 langostino.
- 200 gr. perretxiko.
- 2 arraultza.
- Hirina.
- Olio.
- Ardo txuria.
- Tipula erdi bat.
- Perrexila.
- 200 cc esnegain.



JUANTXO ALDALUR
*Txuringo Jatetxeko
sukaldaria*

PRESTAKETA

- Langostinoak zuritu eta azalak eta burua gorde. Lenguadoarekin xerrak egingo ditugu eta hauen hezurrekin eta langostinoen azalekin salda egingo dugu.
- Lenguadoaren xerrak irinetan eta arraultzatan pasatu eta oliotan frijituko ditugu.
- Kazuela batean olio piska batekin tipula ipiniko dugu txiki-txiki eginda. Biguntzen denean, perretxikuak botako dizkiogu, hauek ere txikituta. Dena biguntzen denean, langostinoak, ardo txuria eta arrain salda botako dizkiogu eta dena edukiko dugu 3 minututan egosten. Ondoren esnegaina ipiniko diogu eta beste 3 minututan edukiko dugu egosten.
- Azkenengo momentuan lenguado xerrak sartuko ditugu kazuela barruan eta pisika baten egosten lagako dugu. Gaietik perretxikoak bota daitezke.

■ adituen esanetan

Itsasoko uraren onurak

MIGUEL ARANGUREN, *medikua, hidrologian espezializatua*

Itsasoko uraren ezaugarri nagusia duen gazitasun altua litzateke. Gatz-mineral horiek dira onura ekarriko ditugunak. Azalaren bitartez absorbatzen den gatz gorpuz osoaren onerako izango da, organismoaren indartzea suposatuko baitu. Gorpuzaren defentsak gehituko dira eta, beraz, infekzio birikoak eta hainbat infekzio bakteriano gaintzeko gaitasun gehiago izango dugu. Frogatuta dago egunero itsasoan bainatzen den jendeak nekez hartzen duela katarro bat edo gripea. Historian zehar itsasoko ura gorpuzaren indartzea lortzeko erabili izan da. Homeroen garaian ere soldaduek, gerrara joan baino lehen itsasoan bainatzen ziren eta

bueltan beste horrenbeste egiten zuten zauriak sendatzeko, itsasoko urak azal ganean ditugun bakteriak akabatzeko botere antibiotikoa ere badaukalako.

Bestalde, gatzaren flotazioaren eraginez, arazo erreumatikoak dituztenek uretan mugitzeko erreztasun gehiago daukate, gorpuzaren pisu osoa jasan barik. Erreabilitazio ariketak egiteko adibidez proposa da eta artrosis, artritis eta osteoporosis kasuetarako gomendatzen da (pizinetan ere efektu antzekoa lortuko dugu). Talasoterapia zentruetan itsasoko ura, tenperatura altuekin eta masajearekin batzean, tentsio arteriala edo estres egoerarako primeran etorriko zaigu. B

■ bergarako gordailutik

KALEETAKO ARGIAK OLIO INDARRAREKIN

Imanol Sorondo

Kalean farolak ipintzeko egitasmoa darabilte eskuartean Bergaran 1786. urtean. Horretarako, Bilbora eskutiz bat idazten dute hangoak nola ipinita dauden eta zenbat kostatu diren jakiteko. Hiri nagusi horretan farolak amezkilatik gauerdiraino pizten dira, eta erabilera ez da berdina abenduan edo ekainean, hil honetan denboraren erdia piztea nahikoa baita.



Beste alde batetik, ilargi bete dagoenean, eta inguruko 9 eguntan ere, ez da hainbeste beharko; horrelakoetan beraz olio neurtua botatzen dute; hainbeste ordurako, hainbeste olio.

Bergaran ez dira 250 farol eta 6 langile behar Bilbon bezala, 32 eta bakarria baizik. Bergarako aurrekontua hau da:

- Langile bakarria: 730 erreal
- Olio: 1.707 erreal eta 13,5 marabedi
- Sokak, metxak, e.a.: 76 erreal eta 27 marabedi
- Farolak, aparte: 193 erreal eta 6 marabedi. B



Indiarrak Elosun

Asiarekiko Solidaritate Ihardunaldiak izan direla eta, Indiako **Adi-vasis** tribuko talde bat Euskal Herrian izan da egunotan. Indian 46 urte egin dituen **Inazio Galdos** jesuita atxabaltarraren laguntzaz, 14

lagun etorri dira eta egonaldia Urkulun, Aozarazan egin dute. Otsailaren 7an heldu zirenetik ia Euskal Herriko bazter guztietan izan dira eta **Jose Antonio Ardanza** lehendakariak ere harrera egin zien Gasteizen. Joan den astean Bergarara heldu ziren eta herriko lagun talde batek antolatutako afarian 44 lagun bildu ziren Elosuko soziedadean. Afal aurretik euren musika eta dantzak eskeini zituzten adi-vasiek Elosuko frontoian eta giroa primerakoa izan zen. Hurrengora arte!!

Golegile sarituak

Mugertza harategiak bi txuleta ematen dizkio jardunaldi bakoitzeko Bergara K.E.ko golegile nagusienari. Bergararrek 4 eta 0eko emaitzarekin menderatu zuten Antoniano taldea zapatuan Agorrosinen eta golegileak **Josetxo Lizarralde** (pare bat gol), **Iban**

Blanco eta **Jokin Mendiartz** izan genituen.

Josetxok, beraz, txuleta pare bat jasoko ditu aste honetan. Aurrekoan Igor Errasti izan zen txuletak etxera eraman zituena. Argazkian Mugertza harategiko Olvirekin ikus dezakezue. Martxa honetan golegileek indarra sobran izango dute igoera lortu ahal izateko...



Hirien berpizkundea

Eguakitzean **Berpizkunde Hiritarra** izeneko erakusketa zabaldu zen Udaletxeko Pleno Aretoan. **Antton Martinez de Salazar** Deustuko arkitektura irakasleak eta erakusketaren koordinatzaileak Bergarako herriak arkitektura aldetik duen garrantzia azpimarratu zuen. Hain zuzen ere, hiri eta herriek komunitatearen garapenerako duten inportantzia erakutsi nahi da erakusketan eta Bergarako Udaletxearen birgaitzeari buruzko plano eta argazkiez gain, Berlin, Oxford, Donostia, Irun, Baiona edota Ziburuko kasuak azalduko dira. Erakusketa martxoaren 1era arte izango da zabalik Pleno aretoan. 1996an Bolognian martxan jarritako erakusketa ibiltari hau Lisboako Erakusketa Unibertsalean ere erakutsiko da.

Bergarako promesak

Bergara K.E.ko bigarren mailako kadeteak aurten ere primeran ari dira. Aurreko denboraldian Gipuzkoako infantil mailako txapeldunak izan genituen eta aurten kadete mailako liga irabazi dute "**Tximis**"

Aranburuk eta **Pedro Jausorok** entrenatutako mutilek. Orain ohorezko ligara igotzeko fasea jokatzen ari dira eta **Antxon Txintxurretak** bazkari batekin saritu nahi izan zuen gaztetxoek orain arte egindako denboraldia. Horrelako animoekin ziur igoera lortzen dutela...



B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 76 27 97, mobila: 908 87 68 47
- **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 76 32 06
- **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5, behea. 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 76 01 65 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren.** (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosoingo igerilekuak. 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 76 60 13 • **PAYROS Aitziber.** Bidekurutzeta 46, behea. 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ekerra. 76 70 91 ■ **PEDAGOGOAK: IZETA Maribi.** (Gabinete psikopedagogi-koa: logopedia, psikomotrizitatea) Simon Arrieta 3, 2-E. 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Eburne.** Simon Arrieta 2. 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon M. Lili 2. 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA: MORAGUES Carmen.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kазetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripj Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 11 zenbakia. 1998ko otsailak 20.

Antzuolako baserrien izenak

Udala baserri-izenak nola idatzi aztertzen aritu da azken 5 hilabeteetan

Udala herriko baserrien izenak nola idatzi behar diren zehazteko ahaleginean aritu da pasa den irailetik. Udalak baserrietako seinalizazioa egiteko asmoa du udaberrir aldera eta horren aurretik euskal toponimian adituak direnen iritziak jaso dituzte, Euskaltzaindiak emandako irizpideen arabera jokatzeko. Hemen behean aurkezten dizuegun izen-zerrenda da Udalak orain arteko irizpide guztiak kontutan izanik osatu duena:



Auzoak, eta ez baserriak, seinalizatu zituen Udalak azkenengo aldiz.

Akiñao	Baztarrinagoikoa	Ibarre	Lamarianogañekoa	Sarasketazar
Akiñabei	Benitua	Igeribar	Lapatza	Sarralde
Altamira	Bereterio	Igeribar-Azparrundi	Laskurainandia	Txanbolin
Altzeta	Besagasti	Igeribarrerrota	Laskuraintxikia	Udala
Amezitzarra	Bidaurre	Iñurrigarroazpikoa	Lausagarreta	Ugarriagaazpikoa
Amilleta	Bizkalatza	Iñurrigarrogaraikoa	Lizargarate	Ugarriagagañekoa
Aranburu	Burubiko	Iraeta	Lizarriturri	Ugartetorre
Aranguren	Egurribai	Irala	Loieta	Untsarri
Arimendi	Eguzkitza	Iralaetxeberri	Madariaga	Urrutia
Aritzagabasalde	Elorriaga	Iralatorre	Mendiola	Ursalto
Aitzaga	Elutsa	Irastortza (Irausta)	Miso	Zabala
Ariztiberi	Erautza	Iriarteazpikoa	Mutillagoen	Zorroztarrieta
Ariztizar	Ertzilla	Iriartegañekoa	Olamendi	Zumaetaazpikoa
Arrandari-Ozaeta	Etxeberrisoro	Irimo	Olazabal	Zumaetagañekoa
Arrandari-Torre	Etxenagusia	Iruetxeta	Ondamendi	Zupide
Arrasate	Galardi	Irular	Otain	
Arreluzaunderi	Galartza	Iturbeandia	Otamendi	<i>Beste batzuk</i>
Arreluztxiki	Goenaga	Iturbetxikia	Pikunieta	Arantzaleku
Arreluzetxeberri	Goitia	Iturriotz	Sallabente	Etxealai
Azkarate	Gorizaundi	Jauregi	Sarasketaberri	Gure Txoko
Baztarrinabeekoa	Gorritziki	Lamarianoazpikoa	(Goikoetxe)	Lekuberri

Hi, nahikua dok/n, ez?



Aitor Aranguren

Oin dala pare bat urte arte, insumisoren bat epaitzen zebenian, gizartiak kalia erantzuten zeban, insumisuen aldeko manifestaziñuak egitten, herriko udal-tan insumisiñuaren aldeko postura eskatzeko moziñuak presentatzen, epaitegixen aurrian protestaldixak egitten...

Oin, berriz, iñok eztaki noiz zein epaitzen dabean. Esate baterako, azkenengo 2 hillabetetan 4 antzuolar epaittu dittue (bueno, epaittu... hori esan baldin baleike); gaiñera insumiso pilla batek kartzelan segitzen dau. Kalia be entzuten da "ze ondo, pozik egongo zate ezta? etzate soldaduzkara jun bihar!".

Gobernuak hartutako neurriekin (ejerzituen profesionalizaziñua, insumisuendako zigor berrixak...), insumisiñua bukatzera doiarrela emoten dau. Baiña ezta hola! Insumisiñuak zigortuta segitzen dau. Lehen kartzelara bialtzen zittuan soldaduzkara jun nahi etzebenak; oin, berriz, antezedenterik ezpadukazu etzaittue kartzelara sartzen, baina hamar urterako inhabilitatzen zaittue. Hamar urte ikasketa-bekak ezin jasota, hamar urte etxebizitza publikoak lortu ezinda, hamar urtez lanpostu publikoetan lanik egin ezinda... hamar urte, ez bi egun, HAMAR URTE. Eta hau dana, guk ez togulako eron moduan pentsatzen.

Eta gero, demokrazian garela esaten doskue!

Pantxika, 100 urteko antzuolarra

Bereterio baserrian bi etxebizitza egon ziren aurreko mendean. Mujikatarrak eta Txintxurretarrak bizi ziren. Bertakoa dugu datorren zapatuan, otsailak 21, ehun urte beteko dituen Pantxika Txintxurreta.

Roman Txintxurreta eta Maria Ageda Agirrezabalen alaba bederatzirekin irten zen lehenengo aldiz Bereteriotik. Tolosara joan omen zen umezain Artolazabal Txintxurretarren etxera; bi urtez egon zen bertako lau seme-alabak

zaintzen. Etxe horretakoa da hain zuzen ere, datu hauek jasotzen lagundu digun Justa.

Hamabi urterekin Oñatira joan zen Pantxika Arregi txokolategian lan egitera. Bertan lau urte pasa ondoren, hemeretzi urterekin Bilbora abiatu zen. Ezkondu artean Paz Kareaga andrearen etxean egon zen eta 1924ko urtarrilaren 24an Otxandion ezkondu zen. Esne saltzailea izan zen Otxandion, eta herriz herri esnea saltzen Bilboraino iristen omen zen.


Gaur egun Bilbon jarraitzen du Pantxikak; eta gurpil-aulkian egon arren, Justa bere lagunak dioenez, "oso sasoi onean dago eta burua ere oso ondo dauka".

Antzuolan ere oraindik badiu senitartekorik. Bere anaia zenak, Joxek, Lausagarreta baserria erosi zuen 1936an; beraz, tarteak dira Lausagarretakoak.



Pantxika kalera irten zen azken eguneko argazkia dugu, 1977ko urriaren 25ekoa. 21urte daramatza aulkian.

ONGI-ETORRI



JATETXEA & TABERNA

Berezitasunak:
haragi eta arraina txingarretan

Buztinzuri 6, ANTZUOLA
Tf. 76 63 49



TXOMIN

garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

GOROSTI Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

Antonio Merino, antxintxikalaria

Antonio Merinok bigarren postua lortu zuen Lizarran jokaturako Euskal Herriko kros txapelketan. Santiago Perezek entrenatzen duen antzuolarra hirugarren urtez gelditu zen bigarren.

Madriko txapelketaren ondoren Euskadiko kros txapelketan egon zinen otsailaren 8an. Gustora al zaude emaitzekin?

Tira!, hirugarren urtea da bigarren postua lortzen dudala eta lehenengo izatea gustatuko litzaidake. Zirkuitoa nahiko laua zen eta, egia esan, horrek kalte egin zidan; gainera, gazteak gogor atera ziren.

Karrera askotan parte hartzen ari zara aurten.

Bai, hala da; iaz maiatz aldera lesio bat izan nuen eta hiru hilabetez ezin izan nuen ezta entrenatu ere egin. Azkenean, iraileko Espainiako txapelketarako gertatzeko, abuztuko oporrik gabe gelditu nintzen eta gero dena segidan etorri da. Oso forma onean nengoen eta Behobia-Donostian egon nintzen. Europako kros txapelketan ere parte hartu behar nuen baina azkenean ez ninduten hautatu.

Noiz daukazu hurrengo lasterketa?

Kluban arteko Espainiako txapelketa da hurrengo frogarik garrantzitsuen, Toron (Zamora). Klubak asko eskatzen digu eta irabaziz gero, kluban arteko Europako txapelketara joango ginatke. Hala ere, garrantzitsuagoa da niretzat Gasteizen martxoaren 8an egingo den Espainiako banakako txapelketa.

Zein da zure muga?

Internazionala izan nahiko nuke. Europako kros txapelketan parte hartu nahiko nuke. Iaz meritoak egin nituela uste dut baina hautatzaileak inguruko jendea aukeratu zuen. Jakina, Marrake-



Antonio Merino
II. Euskadiko kros txapelketan.

xen jokatu den Munduko Txapelketan egotea asko gustatuko litzaidake.

Nola eta noiz entrenatzen zara lanean zortzi ordu eginda?

Kirol honetan errekupeazioa oso garrantzitsua da, eta egia esan nahiko gogorra da lanetik irten eta entrenatzera joatea. Egurditan ordu erdiz aritzen naiz eta gero 18:30etatik aurrera. Sakrifizioa eskatzen du baina gustatzen zaidanez, merezi du.

Zer gomendatuko zenieke hasten ari diren antxintxikalariei?

Kirol hau oso indibiduala da eta sakrifizio handia eskatzen du, baina pazientzia izan behar da; sakrifizio pixka batekin eta pazientziarekin lortu daiteke.

Bertso ikastaroa

Bertsotan egiteko ikastaroa antolatu du Idolazek. Hasierako maila landuko da orain, eta gerora jendeak nahi izanez gero, jarraipena izango du. Izena emateko udal liburutegira, Itzar liburudendara edo Kontuolara deitu daiteke otsailaren 28a baino lehen.

Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak emango du ikastaroa.

Lehenengo saioa martxoaren 5ean izango da 18:30etatik 20:00etara herriko eskolan.

Ikastaroaren prezioak honako hauek dira: bazkide jubilatu, ikasle eta langabetuek 500 PTA eta bazkide langileak 800 PTA. Idolazeko bazkide ez direnek, ordea, 1.000 PTA ordaindu beharko dute.

Jatetxe Gidak

Idolazek San Blas egunean sadu behar zituen Jatetxe Gidak, domeka honetan, otsailaren 22an ipiniko ditu salgai herriko plazan. Gida bakoitzak 500 PTA balio du eta Deba Garaiko 100 jatetxeri buruzko datuak jasotzen ditu. Herriko bost jatetxe ere agertzen dira aipatu gidan.

Gazinema

Matilda filmea eskainiko dute domekan, otsailak 22, 16:30etan. Datorren asteko eguakitzean, otsailak 27, *El paciente inglés* 22:30etan. Domekan, martxoak 1, *En busca del valle encantado* 4, 16:30etan.

Idolazen oharra:

Idolazek urteko Batzar Orokorra egingo du datorren egunean, otsailak 26, udaletxeko areto nagusian, 19:30etan.

Juntakide berriak aurkezteaz gain, Idolazkideek 1997ko ekintzen balantzea egingo dute eta 1998rako asmoak aurkeztuko dituzte.

SURPE
taberna

Girorik
jatorrena!

Herriko plaza 2, Antzuola
Tf. 76 64 97



DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 76 62 75

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kuxilatatu eta
barnizaketa •

Ihauterietan dantzari berriak herrian

Orain arte, Oinarin dantza taldeko mutiak irtetzen ziren sorgin dantza egitera ihauterietan. Aurten, berriz, dantza taldekoak ez diren herritarrek aritu dira dantza hori ikasten eta domekan kalean erakutsiko dute ikasi dutena. Herriko beste talde batek txerri dantza ikasi du, eta hauek ere mozorrotuta aterako dira domekan herria alaitzera.

mau zebe. Berez dantzia mistua da, neska eta mutillentzako, baiña karnaballetan neskak bakarrik egingo dogu.

“Gizendu jaku txarrixa, saltoka dabil herrixa, aintziñako itturrixa, umore barri-barrixa”.

Dantziak bertsua dauka eta guk, dantza egitten, zati hori kantauko dogu;

gero plazan egitten dogunian, Fernando Letek kantu osua kantauko dau. Gainera, plazako saiorako txalapartia be egongo da; berez dantzia txistua, zilbotia, dultzaiña, atabala, soiñu haundixa eta txikixa eta txiruliakin egitten da. Txalapartia be jotzen da. Plazako saian Nora Legorburuk eta Aitziber Goñik joko dabe txalapartia.

Txerri dantza egitera mozorrotuta aterako dira herriko emakumeak, ondoren gizonezkoekin batera Jubilatuetara joango dira bazkaltzera eta arratsaldean kalejiran irtengo dira Bostak txaranga donostiarrekin 17:30etatik 20:30etara.

S

orgin dantza Antzuolako dantza dela eta, duela urte batzuk errekuiperatu zuten Oinarin dantza taldekoek. Aurten, ordea, dantza taldekoek gain beste mutil batzuk ere

animatu dira dantzan egitera eta dagoneko prest daude neska jantzi eta sorgin dantza egiteko.

Neskek beste dantza bat ikasi dute Oinarinekoekin, eta esan digutenez, “errez hartu dogu; nekezena pausuen ordena akordatzia izen da, entsaiuak astian behin izeten zien eta pauso pilla bat die; hori izen da nekezena astian behin bakarrik entsaiauta horixe pasau jaku, baiña bestela erreza; penia da akabatzia!”.

Belen Azkarate izan da dantza irakasten aritu denetako bat eta berak kontatu dizkigu dantzaren nondik norakoak:


Nola hasi zineten asmo honekin?

Egixa esan, eron asmua izen zan. Dantza egin nahi zebe eta, jende asko dantza egitteko modukua aukeratu giñuan, gaiñera, erreza izen bihar zan, lehenbailehen ikisteko.

Nongoa da txerri dantza?

Dantza hau Arrasateko Lore Gazteak dantza taldiak asmau zebe Santa-masetarako. Oin dala urte batzuk as-

“Gizendu jaku txarrixa, saltoka dabil herrixa, aintziñako itturrixa, umore barri-barrixa kantauko dogu dantzan”



Sorgin dantzaren entseietako une bat.

KALEGOI 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokatak eta tapizatuak

HARIZKI

MUEBLES
IGEA

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Gazteen lokalak

Zer dago inguruko herrietan?



Antzuolako Gaztetxeak 13 urte bete zituen iaz Udalak lagatako lokalean.

MARIJO DEOGRACIAS

Dagoeneko bost urte bete dira Bergarako Gaztetxea itxi zutenetik. Orduetik hona ahalegin batzuk egin dira gazteen partetik beste lokal bat eskuratzeko baina gazteen eta Udalaren arteko akordioa ezinezkoa izan da orain arte. Bien bitartean, inguruko herrietan zelako egoera bizi duten ezagutzera jo dugu.

Andoingoarekin batera, Oñatiko Gaztetxea Gipuzkoako lehene-tarikoa izan genuen. Udalak emandako lokal batean 1980ko hamarkadaren hasieran jarri zen martxan eta 1986 urtera arte izan zen zabalik. Udal batek itxi zuen lehen gaztetxetarikoa bat ere Oñatikoa izan zen. Arrazoiak, beste hainbat kasutan errepikatu izan direnak: ordutegia ez errespetatzea, zarak... Gaztetxearen alternatiba modura, duela hiru urte Gaztelekua ireki zuen Udalak. Plazan kokatuta, hasierako planteamendua 14 urtetik 22 urtera bitarteko gazteei zuzentzea izan zen. Udalak Gaztelekuaren aurrekontua kontrolatzen du eta lan-talde bat kontratatu du lokalaren jestia eramateko. Urtean zehar kontzertuen programazio iraunkorra dago eta beste hainbat zer-

bitzu ere eskaintzen dira: informatika gela (Internet-ean prezio merkean ibiltzeko aukerarekin), topalekua (aldizkari, egunkari edota mahai jokoak gaztetxoentzat), elkarteek erabil ditzaketen lokalak, bideo formatoko filmeen programazioa eta beste hainbat. Musika ekipoa ere bada bertan eta herriko talde ezberdinek erabiltzen dute noizean behin euren ekintzetarako. Patxi Hipolito bertako teknikaria da. Bere hitzetan, "programazioa osatzerakoan, gazteen inizatiba bultzatu nahi da. Eta gero eta gauza gehiago antolatzen dituzte. Hala ere, gazteak ideia puntualak burutzeko mugitzen dira nagusiki eta ez dugu lortu oraindik jestia asanblada iraunkorra izatea". Gaztelekua aste osoan zabaltzen da (astelehenetan izan ezik) eta astebukaeretan ordu gehiagoz



Ezkerreko argazkian Gasteizko The Allnighters taldeak Arrasateko Gaztetxean emandako kontzertu bateko irudia. Eskuman, Oñatiko Gaztelekua. 15 urteko gaztetxoak biltzen dira bertan batez ere eta, besteak beste, diskoteka saioak antolatzen dira.

ARRASATE PRESS

ekitaldietarako ere laguntza puntualak ematen ditu. Lehen asanblada bidez funtzionatzen zuen Gaztetxeak eta orain, berriz, bertan lanean ari diren tabernariak betetzen dituzte nolabait zuzendaritza lanak. Urtriarren azkenetan Gaztetxeako arduradunak hautatzeko bozketa egin zen eta aukeraturako 15 lagunek zuzendaritza eramango dute urtebetez. Hala ere, Gaztetxean lanean jardun dutenek Asanblada baten beharra somatu dute; bestela, tabernariak alde egitean, mugimendurik gabeko Gaztetxe bat egoteko arriskua ikusten dute. Bertako ordezkarien hitzetan, "Udalarekin daukagun harremana oso ona da. Edozein gauza eskatuta ere, beti azaldu dira prest guri laguntzeko eta ez daukagu inolako kexarik. Gauzak antolatze-ko ere askatasun osoa dauka-

gu". Udatik hona ez omen dute gauza gehiegirik antolatu baina ahal duten bakoitzean mendi irteerak, kontzertuak edo txapelketak antolatzen dituzte. Gaztetxearen inguruan 15 urtetik 30 urtera bitarteko jendea biltzen da, "ordu-tegiaren arabera izaten da hori baina adin ezberdineko jendea etortzen da Gaztetxera". Gaztetxeako arduradun berriek Gaztetxea pintatzeari ekingo diote otsailean.

Gazte-Txokoa

Bestalde, Antzuolan, 11 urtetik 16 urtera bitarteko gaztetxoentzat Gazte-Txokoa ere badago. Gaztetxearen ondoan kokatuta, Guraso Elkarteak jarri zuen martxan Udalaren laguntzaz. Lokala Udalarena da eta lokalaren gestioa Jardun elkarteari adjudikatu zitzaion. Bertan iharduera ezberdinak antolatzen dira.

Elgetako Gaztetxea Frontoiaren alboan kokatuta dago. Martxoan bi urte beteko ditu. Elgetako gazteek lokala okupatu ondoren, akordio bat lortu zuten Udalarekin lokalarekin jarraitzeko. Hasieran urtebeteko kontratua sinatu zuten lokalaz jabetzeko eta oraindik ere bertan jarraitzen dute. Hogei bat gazte biltzen dira Gaztetxearen inguruan eta helburua autofinantziazioa lortzea da. Hala ere, herrira begira antola-

egoten da zabalik. Hipolitoren ustez, "Gaztetxea itxi ondoren, gazteek inposatutako alternatiba modura ikusi zuten Gaztelekua baina piskanaka-piskanaka hori aldatzen ari da. Jendearen ikuspegia dexente aldatu da eta Gaztelekuak harrera ona izan duela esango nuke". Egunero Gaztelekura hurbiltzen direnen batz besteko adina 15 urtekoa bada ere, kontzertuetan, antzerki ikastaroetan edota beste iharduera batzuetan parte hartzen dutenak nagusiagoak dira. Tailerrak eta ikastaroak antolatzeko orduan herriko taldeek ere kolaboratzen dute.

Ordutegiarekin akordioa

Gurea zinema zegoen tokitik oraingo lokalera trasladatu zen Arrasateko Gaztetxea. Bertan kokatu zela zazpi urte beteko dira laister. Udala eta frantzizkotarrak ez dira ados jartzen lokalaren jabetzaren inguruan eta urtetan hutsik egon ondoren gazteek lokala okupatu zuten. Udalarekin zein inguruko bizilagunekin akordio batera heldu ziren

gazteak bertan antolatzen diren kontzertuak gaueko 12etarako amaituta izateko. Gaztetxeok adierazi digutenez, ez dute harremanik Udaleko alderdi politikoekin baina bai Udaleko Gazte Zerbitzuarekin eta kultur arlokoekin. Gaztetxean taberna dago eta noizean behin kontzertuak antolatzen dira. Orain Arrasateko beste 14 kolektiborekin batera Gazte Astearen antolakuntzan ari dira. Antzerkia eta musika ekitaldiak dira nagusi Gaztetxean eta Abiadura Haundiko Trenaren aurkako asanblada ere bertan biltzen da. Funtzionamenduari dagokionez, asanbladak erabakitzen du Gaztetxearen nondik norakoa nahiz eta ordezkari batek barne funtzionamendua aspaldian nahiko lagata dagoela adierazi digun. Ura eta argindarra ez dute ordaintzen eta lokalaren jabetza argitzeke dagoenez, ez dakite nork ordaintzen dituen.

Antzuolako Gaztetxeak 13 urte bete zituen iaz. Udalak laga zien lokala eta urteko argi eta uraren gastuak ere Antzuolako Udalak ordaintzen ditu. Gaztetxeak urtean zehar antolatzen dituen

Antzuolako Gaztetxeak 13 urte bete zituen iaz Udalak lagatako lokalean. Gaztetxearen ondoan, 11 urtetik 16 urtera bitarteko gaztetxoentzat Gazte-Txokoa dago

tzen diren ekintzetarako (Udazken jaia, lehiaketak, Karnabaletako karaoke saioa eta beste hainbat) Udalaren laguntzak jasotzen dituzte. Orainsu ere berogailuaren instalazioa Udalaren kontura egin da. Gazte Asanbladak eramanen du Gaztetxearen ardura eta lokala izan baino lehen Asanbladak gauza ezberdinak antolatzen zituen herrian. Esate baterako, maiatzean ospatzen den Asentzio eguneko jaia berreskuratzea gazteen ideia izan zen. Esan bezala, herrirako antolatzen dituen ekitaldiez gain, Gaztetxeak bestelako ekitaldiak antolatzen ditu: hitzaldiak, diapositibak, lehiaketak, kontzertuak edota ikastaroak. Iban Arantzabal Gaztetxeeko partaidea da eta bere hitzetan, "autofinanziazioa lortzea ez da batere erreza baina nola edo hala saiatzeko gara horretan". Gazteen ekimenen artean hilero kaleratzen den Goibekokale aldizkaria ere aipatu behar da. Udala zein Jaurlaritzaren laguntzaz, Elgetari buruzko 20 orrialdeko errebita egiten dute eta etxez etxe banatzen da.

Lokal konpartitua

Aretxabaletan lehenengo Guardia Zibilaren kuartelean dago Gaztetxea. Edifizioa Musika Eskolarekin, umezaintzarekin eta beste hainbat kolektiborekin konpartitzen



Elgetako Gaztetxeak, herrira begira antolatzen dituen ekintzetarako Udalaren dirulaguntza jasotzen du. Berogailuaren instalazioa ere Udalaren kontura egin da

dute eta Udalak lagatakoa da. Martxoan euren zazpigarren urteurrena bete dute Gaztetxeak eta hainbat ekitaldi prestatzen ari dira dagoeneko. Hala ere, Benito Sanchezek aitortzen digun moduan, "azkenaldian mugimendu gutxiago dago Gaztetxearen inguruan; beharbada, jendea aspertuta dago edo beste lokal batzuetara jotzea nahi izango du. Hala ere, Gaztetxeari bizirik eusteko ahaleginak egiten ditugu. Noizean behin kontzertuak, txapelketak edota bazkariak antolatzen ditugu". Azken hiru hilabeteetan asanblada

bakarra egin da Gaztetxean eta bertan ari direnak barran jasotako diruarekin gastuei aurre egiten saiatzen dira. Ekitaldiak antolatzeko ez dira Udalaren dirulaguntza jasotzearen aldekoak, "karreteletan bestela Udalaren izena agertu behar delako. Nahiago dugu geure alde joatea". Ordutegiari dagokionez, astebaruan 12etatik gaueko 12etara izaten da zabalik eta astebukaeretan goizeko ordubiak arte. Gaztetxetik adierazi digutenez, "herritarren kezak ez dira falta baina hori betikoa da. Leku gutzietan geratzen da gainera". B

Herriko gazteak lokal baten zain

Bergarako Gaztetxeak 1993eko abenduan itxi ziren. Lokalaren jabetzaren inguruan Gaztetxeak eta Donostiako Elizbarrutiak izandako auziaren ondoren, Epaitegiak Elizbarrutiak lokala berreskuratu zezakeela erabaki zuen. Orditik Gazte Asanbladak, beste hainbat taldeekin batera, lokal bat eskatu izan dio Udalari baina ezin izan da akordiorik lortu eta bi aldeak elkarri leporatu izan diote irteera bat topatzeko ahaleginik ez egitea. Gazte Asanbladak Goiko Estazioko zentral elektrikoa okupatzeko egindako ahalegina ere bertan behera geratu zen.

Joan den urteko apirillean Udaleko ordezkariak, herriko ikastetxeetako arduradunekin eta gazte eta kultur taldeetako ordezkariekin bildu ziren, talde bakoitzaren beharrak zeintzuk ziren az-

tertzeko asmoz. Bileran hartan Udalak taldeen eskakizunak baloratu eta udal lokalen banaketa berria egiteko konpromezua hartu zuen. Bileraren helburu nagusienetako bat gazteentzako bilgune bat sortzea zen baina Udalak ez du hortarako lokal egokirik aurkitzen eta oraindik ez daki gazteekin eta lokal banaketarekin zela jokatu. Bileran hartan Gazte Batzorde bat sortzeko ideia ere izan zen aztergai baina asmo horrek ez du aurrera egin. Gaia momentuz geldirik dago eta apiriletik hona ez da beste bilerarik egin hori tratatzeko. Gaur egun, gazteentzako dagoen aukera bakarra Gartzela Zaharra da. Bertan 12 urtetik 16 urtera bitarteko gaztetxeak bakarrik dute sartzeko eskubidea. Bergaran, hortik gorako gazteentzat ez dago, oraingoz, beste eskaintzarik B

ESKOLAKIROIA

IKUSI ETA IKASI

FUTBOLA: Jaurtiketa librea:

Epaileak jaurtiketa librea adieraziko du jokalaria bat nahita honako hau egiten edo horretan saiatzen ari denean:

- Beste taldeko jokalaria bati ostikoa eman.
- Aurrakoa zangotrabatu.
- Aurrakoa gainera jausi.
- Aurrakoa jo edo heldu, bultza egin edo txistua bota.
- Zelaiko jokalariek esku edo besoez baloia eraman.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



TXINPARTAK

Atletismo probak Arrasaten

Zapatuan Deba Garaiko atletismo txapelketaren lehen jardunaldia jokatu da Arrasaten goizeko 10etan Iturripen. Bergararik mutilen 3 talde eta nesken talde bat joango dira.

Mikel Blazquezen marka ona

Mikel Blazquezek 11 segundu eta 40 ehuneneko marka lortu zuen 60 metro hesietan. Gainontzeko kirolariek 12 segundutik gorako markak egin zituzten. Antzuolarrak, berriz, bigarren geratu ziren neska eta mutiletan.



Aranzadiko infantilek. Mutilak

Aranzadiko infantilek mailako mutilen eskubaloia taldea Jesus Navas, Ander Alvarez, Mikel Larrañaga, Ander Laborda, Ibai Otxoaizpurua, Ion Beistegi, David Guisado, Mikel Soriano eta Ion Ugartetxeak osatzen dute eta Ruben Sanchez eta Mikel Agirrezabal dira entrenatzaileak. Jokalariek diote nahiago dutela erasoan jokatu defentsan baino. Ander Laborda taldeko goletzalea da eta defentsan Mikel Soriano eta Mikel Larrañaga direla gogorrenak esan dute. Bidasoa taldearen jarraitzaile sutsuak dira eta jokalaria bat aukeratzekotan Kovacevic edo Dussebaiev aukeratu lituzkete. Txapelketako lehenengo partidua 30 eta 3 galdu zuten arren, orain hobeto ari dira: Arrasateri 18 eta 12 irabazi diote.



Aranzadiko infantilek. Neskek

Aranzadiko infantilek mailako nesken eskubaloia taldea Elaia Iñurrategi, Miren Etxeberria, Nuria Fernandez, Saioa Txabarri, Idoia Elorza, Maialen Manterola, Gotzone Jaso, Naikari Medina, Nagore Aizpurua, Ane Miren Irizar, Izaskun Arrese eta Ariane Correiak osatzen dute. Entrenatzaileak Olatz Bideluze eta Argiñe Zurutuza dira eta Aranzadi ikastolaren izenarekin jokatzuten duten arren, taldean Mariaren Lagundiko eta Ipintza institutoko jokalariek ere badaude.

Astero bi egunetan entrenatzen dira eta partidua bakarra irabazi arren, oso ondo pasatzen dutela diote. Eskubaloia gustatzen zaielako aukeratu dute eta beste kirolen artean futbola dute gustoko.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Zapatua. Ipintzan futbol zelaia.

Infantilek / Mutilak

10:15: Ipintza DBH-SFX Ikastola.

Infantilek / Neskek

09:15: M. Lagundia-SFX Ikastola.

SASKIBALOIA

Infantilek / Mutilak

Zapatua. M. Lagundia.

11:00: Aranzadi-Aozaraza 1.

Alebinak / Mutilak

Guztia zapatuan. M. Lagundia.

10:00: Aranzadi 7-Antzuola.

10:00: M Lagundia A-Aranzadi 8.

11:00: Martin Agirre-Aranzadi 11.

11:00: M Lagundia B-Aranzadi 9.

12:00: Aranzadi 11-Aranzadi 8.

Alebinak / Neskek

12:00: Aranzadi 13-Antzuola.

ESKUBALOIA

Benjaminak

Zapatua. Seminarioko patioan.

10:00: San Martin-Aranzadi 3.

10:45: M Lagundia B-Elgeta.

10:45: Aranzadi 2-Antzuola B.

11:30: M Lagundia A-Aranzadi 4.

11:30: Antzuola A-Aranzadi 1.

12:15: Antzuola A-M Lagundia A.

12:15: Aranzadi 6-Aranzadi 5.

ARETO FUTBOLA

Zapatua. M. Altuna institutua.

11:00: Los Chicos de.-Aranzadi 203.

12:00: Los Chicos de.-Aranzadi 202.

12:00: M. Lagundia-Aranzadi 201.

ATLETISMOA

Proba guztia Arrasateko Iturripen goizeko 10etatik aurrera.

Alebinak/ Mutilak

Aranzadi 10: Gorka Iñurreta, Mikel Gallastegi, Eloy Crespo, Iker Orgaz, Ibai Igarza.

Aranzadi 12: Julen Muguruza, Joseba Sasigain, Markel Agirre, Jon Kapelastegi, Iker Igarza.

M Lagundia B: Andoni Nafarrete, Ander Usaola, Mikel Blazquez, Mikel Barquero.

Alebinak/ Neskek

Aranzadi 14: Idoia Igartua, Oihane Larrañaga, Lorea Ugarte, Maitane Irazabalbeitia..

Futbola



BKEko talde nagusiak 4-0 irabazi zion Zarautzeko Antonianori eta tinko jarraitzen du lidergoan. Izan ere atzetik dagoen Orioko taldeak berdindu egin zuen eta orain 7 puntura daude. Gainontzeko partiduetan 2. mailako kadeteek ondo hasi dute igoera fasea 2-1 irabazi baitzion Behobiari. Infantilek Mondraren aurkako derbian 2-1 irabazi zuten eta 2. mailako jubentilek 1-12 irabazi zioten Telleriri. Marianoren mutilak bikain ari dira igoera fasean eta horrela jarraitzen badute mailaz igotzeko aukerak izango dituzte.

Emitza txarrei dagokienez, lehen mailako jubentilek 3-1 galdu zuten eta neskek igoera faseko lehen partidua 0-3 galdu zuten Dunboaren kontra.

Eskubaloia



BKEko talde nagusiak arratxa txarrek jarraitzen du eta joan zen asteburuan 31-25 galdu zuen Arrateren kontra. Emitza horrekin Lijoren mutilak jeitsierako postuetatik bi puntura daude.

Asteburu honetan Zumaiako Pulporen aurka jokatuko dute Labegaraietan. Partidua irabaztea ezinbestekoa da eta eskubaloizaleen animoak beharrezkoak izango direla uste dute taldeko arduradunek jeitsiera postuak gertu daude eta.

Kadete mailako taldea bikain dabil eta euren mailako liderrak dira. Zapatu honetan bi partidu jokatuko dituzte eta irabazi ezker lehen postua ziurtatuko luke. Kadete neskek liga bigarren postuan bukatu dute eta orain kopa hasiko dute.

Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak zapatu honetan hasiko du igoera fasea Portugaleteko Jarrilleros taldearen kontra. Bizkaitarrak beste multzoko lehenengoak dira eta Conderen mutilek indarrak neurtzeko aukera paregabea izango dute. Igoera fasean beste 5 talderekin batera 3. postuan daude eta Jarrilleros 1go postuan dago bi puntuko aldearekin.

Jubentil mutilak 2. postuan daude eta lehenengo postuan dagoen Athletic San Sebastianen kontra jokatuko dute. Jubentil mailako neskek arratxa onari eutsi diote eta bigarren partidua jarraian irabazi zuten. Kadete mutilek galdu egin zuten eta atzeko postuetan dagoen Euskaldunaren aurka jokatuko dute.

NAIARA BEISTEGI / Futbolaria "Mailaz igotzen saiatuko gara"

Naiara Beistegik BKEko emakumezkoen futbol taldean jokatzen du. Joan zen asteburuan mailaz igotzeko igoera fasea hasi zuten eta lehenengo partidua galdu arren mailaz igotzeko itxaropenarekin daude.

G. Espero zenuten igoera fasea galduaz hastea?

E. Dunboa talde ona da, joan zen urtean euren kontra penaltietan kopako finala galdu genuen eta. Bagenekien talde ona zela, baina zerbait gehiago egin genezakeela uste dut.

G. Helburua mailaz igotzea da?

E. Igotzeko ahal duguna egingo dugu. Beste taldeen maila ona da eta zerbait egitea zaila da, baina gu saiatuko gara.

G. Nola ikusten duzu zure taldea?

E. Azkenaldian lesio asko izan ditugu eta askotan aulkitxoan jende gutxi izaten da. Horrela zaila da partiduak aurrera eramatea.

G. Zer da zure taldearen gauzarik onena?

E. Partidu guztiak desberdinak dira; batzuetan aurrelariak ibiltzen dira ondo, bestetan atzelariak eta atezaina ere oso ondo ibiltzen da.

G. Gol asko sartzen dituzu?


E. Aurten 7 sartu ditut. Dauden aukerak aprobetxatu egin behar dira.

G. Zenbat urte daramatzazu taldean?

E. Aurtengoa 3. denboraldia da.

G. Ordutik maila asko hobetu duzue?

E. Urtero taldea asko aldatzen da. Jokalariak kanpora joan dira eta beste batzuk laga egin dute. Halere, hobetzen ari gara, joan zen urtean kopako finala jokatu genuen eta aurten igoera fasea jokatzen ari gara.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Ilintxa

Lehen mailako jubentilak.
Zapatua. 16:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

Iraundi BKE-Pulpo

Senior mutilak.
Zapatua. 17:15. Labegaraieta.

Bergara-Urrietako

Kadete mutilak.
Zapatua. 10:45. Labegaraieta.

Bergara-Hernani

Jubentil mutilak.
Zapatua. 12:15. Labegaraieta.

Bergara-Ormaiztegi

Kadete mutilak.
Zapatua. 16:00. Labegaraieta.

SASKIBALOIA

Bolsos Bergara-Jarrilleros

Zapatua. 19:00.
Senior mutilak. Labegaraieta.

Bergara-Athletico S.S.

Zapatua. 18:00.
Jubentil mutilak. M. Lagundia.

Bergara-Euskalduna

Zapatua. 12:15.
Kadete mutilak. M. Lagundia.

WATERPOLOA

Bergara-Castellae

Zapatua. 20:00. Oñati.

NESKEN IV. FUTBITO

TXAPELKETA

Domekan M. Altuna instituan.

Nifis-Blue Stars

Arb.: Gu Geu. 16:00.

Gu Geu-Azkenak

Arb.: Zutaz Pentsatzen. 16:00

Zutaz Pen-The Road Island

Arb.: Azkenak. 17:00

Potzu T.Z.-Naikari

Arb.: Antolatzaileak 13:00

PALA TXAPELKETA

Osintxuko pilotalekua.

Laskurain eta Etxaniz-Acedo anaiak.

Zapatua. 15:00.
3. eta 4. postuetarako.

Urigoitia eta Mancebo-**Alberdi eta Gallastegi**

Zapatua. 16:00. Finala.

Etxaniz eta Elkoro txapelaren bila

Elkorok Errasti dominatzea izango da finalaren gakoa

Jokin Etxaniz eta Aitor Elkorok eskuz binakako txapelketako finala jokatu dute zapatuan Errasti eta Unanueren kontra, Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Etxanizek adierazi digunez: "partidu oso zaila izango da. Errasti eta Unanue onenak izan dira ligan txoan eta eurak dira faboritoak". Partidua irabazteko atzelarien lana erabakiorra izango dela esan digu Etxanizek. "Atzelariak dominatzen badu aukera handiak izango ditugu irabazteko. Errastik dominatzen badu Unanue oso arriskutsua izan daiteke. Aitor oso ondo dabil eta nik ere nire lana ondo bete dut".



Txapelketa bikaina egin dute bi pilotari gipuzkoarrek.

Etxaniz oso pozik dago txapelketan egindako lanarekin. Kontutan izan behar da txapelketa hasi aurretik zalantzan zegoela Etxanizen partaidetza eta enpresak be-

rarengan jarritako konfidantza finalera helduaz eskertu dio Etxanizek. "Hasieran zalantzan zegoen nire partaidetza txapelketan, baina azkenengo 3 urteetan bi final

jokatu behar ditut eta horri gehitu behar zaio Zezeagarrekin jokaturako finala. Emaizak hor daude eta oso pozik nago egindakoarekin" esan digu Etxanizek.

Elkoro eta Etxanizek txapelketan egindako lan bikainak inguruko pilotazaleen animoak piztu ditu eta giro hori garbi ikusi zen Bergaran Berna eta Titinen aurka jokaturako lehen finalerdian. Finalak Bergara, Elgeta eta Antzuolako pilotazaleen arreta piztu duela esan digu Etxanizek: "Bergaran kriston entrada izan zen eta finalera Bergara, Elgeta eta Antzuolatik jarraitzaile asko joango direla uste dut". B

Gipuzkoako karateka onenak bildu zituen

I.go Bergara Hiria karate torneoak joan zen domekan

Joan zen domekan I.go Bergara Hiria karate txapelketa jokatu zen Udal Pilotalekuan. Giartzu gimnasioak antolatutako txapelketan Gipuzkoa osotik etorritako 200 kirolari aritu ziren lehian.

Bergararren artean, Giartzu gimnasioko Joel Medrano 3. postuan sailkatu zen alebin mailako gerriko

berde-urdir mailan. Maila berean, Markel Larrañaga Bergarako Shotokan-Magarti elkartekoa, 4. postuan sailkatu zen eta elkarte bereko Oier Tola, berriz, 6. postuan.

Euskadi Akitaniaren kontra

Maria Isabel Hurtado txapelketaren antolatzaile-

tariko batek karate torneoak izandako arrakasta azpimarratu du: "Guztira Gipuzkoa osotik etorritako 200 karateka izan ziren. Domekako proba oso ondo irten zen eta Gipuzkoako karate federakuntzako presidentek eta Euskadikoak zorionak eman zizkiguten egindako lanagatik. Emaizta horiek ikusirik datorren maiatzera-

ko Euskadi eta Akitaniaren arteko erakustaldi bat antolatzeke asmoa dugu. Akitanian oso maila handia dago eta erakustaldi polita izango da. Ekitaldien antolaketarekin karatea indartu nahi dugu Bergaran. Izan ere, karatea dagoen kirolik konpletuena da gorputzeko atal guztiak lantzen baititu eta haurrentzat egokia da". B

Bolintxo
OKINDEGIA

domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

Mugertza harategia

GORA MAHONEROAK!
Mugertza harategiak 2 txuleta ematen dizkio BKEko futbol talde nagusiko golegile nagusiari



Mugertza 12, Bergara. Tf. 76 13 82.

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. 76 04 57.

Burdiñate inguruan pisu txikia alokairuan hartuko nuke. 76 70 63.

Erosi

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. Deitu 76 47 99 telefonora.

Garajea salgai Masterrrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Masterrrekan. Deitu 76 24 57 telefonora.

Garajea salgai Kruz Ga-

lastegin. Deitu 76 27 61 telefonora.

Garajea salgai Martokon. Deitu 76 35 50 telefonora.

Garajea salgai San Lorentzon. 76 45 60/51 45.

Garajea salgai Iburgarain. Milioi bat. Deitu 76 21 61 telefonora.

Garajea salgai Espoioian. 76 18 28.

Garajea salgai San Antonion. 76 15 37.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekoan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Iburgarai 37an. Deitu 76 33 76 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarki sailkatuen sailean oso erreza da zurea jartzea.

Deitu 76 03 97 telefonora edo zatoz Berrigarara. Partikularren iragarkiak doan jarriko ditugu. Inmobiliaria edo auto kontzesionarioenak, ostera, 1.100 PTA ordaindu behar dira modulo bakoitza. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Eguazten eguerdia baino lehen jasotako iragarkiak argitaratuko ditugu.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. INMOBILIARIAK

5. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

7. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. AUTO KONTZESIONARIOAK

9. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

10. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

11. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Garajea alokairuan Iburgarain. 76 16 38.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokairuan genuke. 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrrekan. 150m². 76 11 89.

Lokala salgai A. Flemingean. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokoan. 76 25 67.

Arraindegia saldu edo alokatzen da. 76 32 70.

Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alo-

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Telefonoa: 76 21 21
ANGIOZAR

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA Tf. 76 23 94 - 76 12 65

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

Internet zerbitzu publikoa ipini dute Kultur Etxeko liburutegian

Informazioaren autopistan nabigatzeko aukera

Udal liburutegian Internet zerbitzua martxan dago Gabonetatik. Zerbitzuaren erabilpena arautuko duen baldintzak onartu zituen Udalbatzak joan zen astean.

Liburutegian Internet zerbitzua eskaintzeko monitore bakarra dago eta edozein herritarrek erabil dezake Udal liburutegiko bazkide izanez gero. Bazkide txartela ateratzeko argazki bat eramatea nahikoa da. Zerbitzua 16 urtetik gorakoek erabili ahal izango dute; 16 urtetik 18ra artekoek gurasoen baime-narekin.

Mila Agirrezabal liburutegiko arduradunak esan digunez, unibertsitatean ikasten daudenak dira zerbitzua gehien erabiltzen dutenak. Euren lanetarako informazioa eskuratzeko oso egokia da eta, lehen, liburuetara jotzen bazuten ere, orain ordenadorearen bitartez ere eskura dezakete informazioa.

Liburutegiko Internet zerbitzua erabili nahi dutenek txanda eskatu behar dute aurretik eta 200 pezeta ordaindu behar dute orduko. Sei orri baino gehiago inprimitzea nahi izanez gero, 10 pezeta ordaindu behar da orriko.

Nobela eta liburu berrienak

Udal liburutegian liburuak gordezko toki arazoak dituztela sarri entzun diogu bertako arduradunari. Gaur



Mila Agirrezabal, Udal liburutegiko arduraduna.

egun, 10.000 liburu dituzte katalogatuta, bakoitza bere barra kodigoarekin, eta ordenadorean datu basean gordeta. Merkaturatutako liburu berrienak ere eskura daitezke bertan: "liburutegien artean sortutako kredituaren bitartez, Koldo Mitxelena dituzten liburuak eskura ditzakegu" diosku Milak.

Liburuak bertan irakurri edo kontsultatzen edota bertara ikastera doazenez gain, liburuak etxera eramaten dituztenak ere badira. Udal liburutegiak 800 bazkide ditu eta aldi bakoitzeko etxera bi liburu eraman ditzakete.

Hamabost egun eduki dezakete liburua etxean eta epea berritzeko aukera ere badago.

Aldizkariak eta egunkariak

Udal liburutegian Internet zerbitzuaz eta liburuez gain, era askotako aldizkariak eta zazpi egunkari kontsultatu edo irakurtzeko aukera ere egongo da aurrerantzean. Egunkaria, El Correo, Deia, Egin, El Diario Vasco, El Pais eta El Mundo egunkariak jasoko dira liburutegian. B

Bergarako Udaleko Euskara batzordeak XIII. Literatur Lehiaketa deitu du Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenentzat; olerkien sail berezia aurten

Begarako Udaleko Euskara batzordeak XIII. Literatur lehiaketa deitu du. Lehiaketan Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenek har dezakete parte eta lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dira. Lehiaketan 1990. urtetik aurrera jaiotakoek parte hartu ahal izango dute

eta adinaren arabera bost talde egingo dira. Literatur generoari dagokionez, lehenengo lau mailatan ipuinak izan behar dira eta bosgarren taldean, 15-16 urtetik gorakoetan, bi atal izango dira: ipuina eta olerkiena. Hau nobedadea da, orain arte ez baitzegoen olerkien sail berezirik. Estepan Pla-

zaola euskara teknikariak horren arrazoiak eman dizkigu: "orain arteko edizioetan ez dugu genero bereizketarik egin eta, berez, antzerki, olerki edo saiakera lanak ere aurkeztu zitezkeen; halere, ia guztiak ipuinak aurkezten zituzten. Bestalde, norbaitek olerki lana aurkeztuz gero, oso zaila

izaten zen ipuinekin batera baloratzea".

Lanak entregatzeko epea apirilaren 22an bukatuko da eta sari banaketa ekainaren 6an, Pazkuetako jaietako zapatuan, egingo da eguerdiko 12etan Zabalotegiko aretoan. Argibide gehiago 77 91 66 telefonon. B

kronika

Amodio karten sari banaketa

Irabazleek euren kartak errezitatu zituzten zapatuan

Zapatuan, San Balentin eguna, Amodiozko Gutunen VI. Berrigara lehiaketako sari banaketa egin zen Karzela Zaharrean.

Adur Ezenarro ordiziarrak eskuratu zuen lehen saria (75.000 pezeta), Katti Pochelu hazparnetarrek bigarrena (40.000) eta Itziar Larrañagak bergarar onenari zegokiona (25.000 pezeta). Adur Ezenarrok irakurle gazteek emandako saria ere (Xabier Diaz de Zerioaren eskultura) eraman zuen.

Sari banaketa hasi aurretik, Patxi Saizek bere lehen diskoko hiru kantu abestu zituen. Bertaratutako 60 bat lagunek Patxi Saizen ahots goxoarekin gozatzeko aukera izan zuten. Ondoren, sari baketa egin zen eta irabazleek eu-

ren kartak errezitatu zituzten Soka laukotearen laguntzaz. Normala den moduan antzeman zitzairen jendaurrean errezitatzeraz ohituta ez zeudela. Hala ere, jendeak gustora eta arretaz entzun zuen errezitaldia.

Saioa amaitzeko, Patxi Saizek beste pare bat kantu eskaini zituen kitarraren laguntzaz. Ekitaldian, aurtengo lehiaketako epai mahaian aritu direnak izan ziren eta Jose Angel Mikeo Jardunek presidentea ordeak, Maider Zabalegik, Jon Maiak eta Olaia Jimenezek banatu zituzten sariak. Aurkezle lanetan Aitziber Azkondo eta Ion Sanchez aritu ziren. Azken honek, San Balentin eguna zela eta, Bergaran bikoterik ez duten mutil asko daudela gogoratu zuen. B



Itziar Larrañaga, bergarar onenaren saria, bere gutuna irakurtzen zapatuko ekitaldian.


erreseinak



Antxon Gomez
Aberre madarikatuak
Nobela

Otsoa itzuli da Arabara, Bardeetan izandako gepardoaren bila dabilta, mendi goietan ikusi berri dute hartza, azkonarrak ez du ihesbiderik... Antxon Gomez (Gasteiz, 1964) basozainak, bestiarior liluragarria eskaintzen digu bere lehen liburu honetan. Naturaltasun apalez deskribatu ditu aberre madarikatuen joan-etorriak, ipuinak historiaz eta mitologiak ziprindurik, kondairak eta sinismenak txertatuz zoologiari. Andoni Vechiok egindako marrazkiz jantzita.

- Susa narratiba. 155 orr. 1.800 PTA



Pearl Jam
Yeld
Pop-rock

Euren burua helduago ikusten zutela eta hori beren musikan eta, batez ere, hitzetan antzematen zela aitortzen zuten arestian Pearl Jamekoek; munduari ikuspegi baikorrago batekin begiratzen ziotela. 90eko hamarkada hasieran Seatlen sortutako grunge mugimenduaren talde nabarmenenetakoa -mito bihurtu diren Nirvanarekin batera- zazpigarren diskoa argitaratu berri du jada. "Yeld" izeneko iraupen luzeko honetan betiko ildoari eutsi diote: pertsonalitate handiko Ed Vedder-en ahotzak eta kitarra melodia originalak. Bestalde, dance erritmoek tokitxoa badute eta rock industrialari keinu bat egin diote.

- Epic. 3.000 PTA

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Aurrenekoa. 2. Arabako herria. Titanioa. 3. Urre kolorea jaso duen zerbait. 4. Lapurdiko herria. ekarri aditzaren infinitiboa. 5. Emakume izena. Irakaslea. 6. Naizen hau. Lehen bi-koitia. Zango atala. 7. Plasma. Ogi, hitz elkarketan. 8. Iparraldean, atera. Zaren hori. 9. Turuta-joleak. 10. Arabako alderdi espainiarra. Urrea. Ugari.


Goitik behera

1. Balakatu. 2. Amorratua. 3. Animalia txikia, gorputz luzea, biguna eta zilindro-erakoa duena. Galdetzaille mota. 4. Ez arra. Kaskoa. 5. Mendebaldean, naiz. Begiztatu. 6. Itxura, tankera. Ate, hitz elkarketan. 7. Hari, noa. Oinarrizko edaria. 8. Kontsonantea. Gizon izena. Islandia. 9. Otorduak. 10. Gipuzkoako herria. Bokal errepikatua. Ukapen.

Soluzioa

9. Otoruntzak. 10. Aia. Aa. Uko. 7. Noakio. Ura. 8. G. Tasio. IS. 5. Naz. Miratu. 6. Eitea. Ata. 3. Harra. Zer? 4. Emea. Burua. 1. Lausengatu. 2. Errabiatu. Goitik behera Au. Asko tu. Zu. 9. Turutarak. 10. UA. Oina. 7. Gazura. Or. 8. Atera. Ekar. 5. Eba. Maisua. 6. Ni. Bi. RTI. 3. Urrezatua. 4. Sara. 1. Lehengoa. 2. Aramalo. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar

Olaso dorrean Telesforoz gain, beste hainbat pertsonaia ospetsu bizi izan dira. Horietatik nor izan zen Bergarako alkate, Erret Mintegiko zuzendari eta Gipuzkoako Diputatu Nagusi?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Txuringo** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Maria Reyes Minerentz** izan da: Tartufo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Maria Reyesi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Askagain**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**Txuringo
Jatetxea**

Osintxu
Tf. 76 48 63.

Villavellid-ekoa (Valladolid) jaiotzez, 11 urte zituenetik Bergaran bizi da. 28 urte daramatza okindegian lanean, azken hamarrak Ogizunen; bertako gerentea da. Ezkonduta, bi seme-alaba. Futbito txapelketako antolaketan ari da.

Pedro Rico

Ogia, "rico, rico"?

Askotan entzuten dut hori, bai.

Ogiaren kontsumoa zaintzen duzu?

Ez, elikagai konpletoa delako.

Zer esango zenieke ogi gutxi jan behar dela esaten dutenei?

Erratuta daudela.

Ogia, integrala ala normala?

Normala nahiago.

Kanpoan, non jan duzu ogirik goxoen?

Sorian, Burgosen eta Katalunian.

Bokadilo bat, zerena?

Patata tortilarena.

Sukaldari ona zara?

Jendeak hori esaten du...

Zure espezialitatea?

Arrain zopa. Arraina orokorrean.

Janari bat?

Denetik jaten dut; angulak eta barazki menestra adibidez.

Gure-Ametsako patata-dastaketan izan zinen. Patatak nola gutatzen zaizkizu?

Frijituak.

Zer gosaltzen duzu?

Fruta piskat eta yogurra.

Etxeko lanik gorrotagarriena?

Sukaldea jasotzea.

Seme-alabei gehien errepikatzen diezuna?

Gezurrik ez esateko eta drogekin kontuz ibiltzeko.

Futbola ala futbito?

Orain, futbitoarekin gehiago disfrutatzen dut.

Valladolidek lehen mailari ertsiko dio?

Bai, promozioa ere ez du jokatu.

Nork irabaziko du liga?

Real Madrid-ek, nire bigarren ekipoa da.

Mundialera joateko asmorik bai?

Bai.

Zure bertute bat?

Laguntzeko prest nagoela beti.

Eta defektu bat?

Zorrotza naizela.

Besteengan gehien baloratzen duzuna.

Umiltasuna.

Zerk amorratzen zaitu?

Jakin gabe iritzia emateak.

Hobby bat?

Bidaiatzea.

Egiteko duzun bidai?

Australiara.

Karnabaletan zertaz mozorrotuko zara?

Ez naiz mozorrotzen.

Kinielarik egiten duzu?

Bai. Duela gutxi ia 15ekoa asmatu nuen; Valladolid-Atletico de Madrid partiduko zainua huts egin nuen bakarrik...



FANDANGO ETA ARIN-ARIN IKASTAROA

HASIERA MAILA Martxoaren 2tik ekainaren 15era.

Irakaslea: Amaia Agirre.

Orduetgia:
astelehenera, 19:00etatik 20:30etara.
Gartzela Zaharrean.

5.000 PTA Jarduneko bazkide
direnentzat; bestela, 5.500.

Matrikula epea: otsailaren 27a.

• INFORMAZIO GEHIAGO: 76 36 61 eta 76 08 19





Aspertuarte txaranga, 1971

Karnabaletan eta beste hainbat jaietan faltan botatzen da gaur egun goiko argazkian agertzen den moduko txaranga bat. 1970ko hamarkadaren hasieran Aspertuarte txaranga jo eta su aritzen zen jaietan herriko bazter guztiak alaitzen. Bergaran jotzeaz gain, inguruko herrietara joateko ere deitzen zituzten noizean behin eta berehala dantzan jartzen zuten jendea. Bergarako futbol taldeak Agorrosinen zein kanpoan jokatzen zituen partiduetan ere izaten ziren. Argazkia 1971 urte ingurukoa da eta bertan agertzen direnek 20 bat urte izango zituzten orduan. Soldaduzka egitea tokatu zitzaizenean txaranga desegin zen. Horra hor argazkikoak zeintzuk diren:

Zutik: Fernando Ugarte, Jesus Bolibar, Juanito Alberdi, Manu Berroya, Jabier Lopez Alde-

koa, Iñigo Zaitegi, Moreno, Juan Mari Zabaleta, Aurelio Arrieta, Juan Mari Sotil, Mario Fernandez, Jabier Unamuno, Larrion, Azkarate "Azkatzu", ezezaguna, "Gorrotxa", Jose Ramon Arakistain, Manu Iztueta, Martin Olaetxea eta Manu Otamendi.

Makurtuta: Gonzalo Arrondo, Angel Jimenez "Lin", Santi Iñarra, Manolo Ena, Moises Pildain, Juanjo Gonzalez, Iñaki Pedrejon, "Panti" Oregi, "Txutxi" Fernandez, Rafael Agiriano, Jos Martinez (alkondararekin), Iñaki Umerez (aurrekoaren atzean), Jose Jabier Macho, Juanito Iturbe, Fernando Otaño, Juan Carlos Fernandez, Iosu Bilbao eta German Larrañaga.

Argazkia: Marcial Moreno

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituztu, zatoz!

IZADI PILI GISASOLA

Santiveri 

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 76 58 83



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria  Industriaren
hornikuntzak UNIFE alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABALETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREera

Azkartu itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguru aldaztea **ez zaizu ezer kostako.**

Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**



MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, BERGARA. Tf. 76 18 80.



GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 76 36 42

Faxa: 76 54 25

San Juan auzoa z/g

20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

- *Elkarte europarrera*
- +
- *Suizara,*
- *Norvegara,*
- *Poloniara eta*
- *Hungariara*

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

MATRIKULA EGITEKO:

Otsailaren 23tik martxoaren 13ra arte

Goizez: 8.30-13.00 Arratsaldez: 15.00-18.00

BATXILERGOAK

DERRIGORREZKO 2. HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA

2 urtetik 18ra ikastetxe berean



ARANZADI

IKASTOLA

San Martin Plaza 4 Tl. 76 26 76 - 76 56 76



PARTAID
Ikastola